


BAGOAZ EUSKAL HERRIAREN BURUJABETZA FEMINISTARANTZ!

2015eko otsaila



euskal herriko bilgune feminista
www.bilgunefeminista.org • ehbfeminista@gmail.com

*Emakume egin naute. Edo eraiki. Ez naiz. Ala, bai?
Transa naiz eta querra. Edo ez. Akaso, gara.
Izenik behar al du nire izanak?
Ez dakit non jaio nintzen; ezta noiz ere.
Beti egon garen hemen edo bat-batean agertu ginen. Mundura jaio gintuzten, edo jaio ginen. Baina hemen gaude.
Izan naiz arrantzara joan dena; kideak galernatan itota ikusi dituen.
Galerna ere izan naiz ni.
Bizitza kendu duena, batzuetan; besteetan emateko.
Putza izan naiz, garbitzailea, neskamea, etxeandrea, sukaldaria, eskalea, kale-musikaria, idazlea, komunzuloak garbitu dituen, ameslaria, langabea...
Gaiztoa izan naiz, neure erabakiz, irekitako zauriak miazkatzeko.
Izan naiz kontratu sozialarenpeko heterosexuala.
Bollera izan naiz, kolektibotasunean.
Erabakiz eskuzabala eta hautu propioz bihotz-onekoa. Gogoak hala aginduta, narratsa, alferra eta maitale neurekoa.
Izan naiz MacDonalseko paretatan pintadak egin dituen egun batean, hurrengoan Telepizzako kontratua sinatzeko.
Uniformea urratu eta nagusien aurpegira txistu egin duena izan naiz.
Negar egin dutenak izan gara.
Malkoak dastatu dituztenak zuen mingainetan.
Borrokatu direnak elkarri larrua joaz, zein mugaren bestaldean.
Armatzat sukaldeak izan dituztenak, edota buruberokiak.
Askatasunaren alde bizia eman dutenak gara.
Gorputza minduta dutenak, garrasi egin dutenak.
Ukabilka aritu gara, mokoka, liskarretan.
Garaile eta garaituak gara.
Ausartakizangara, geurekoiak, alferrak, aspergarriak, maitagarriak, desiragarriak, gorrotagarriak.
Maitatuak izan gara, eta maite izan dugu. Bakarrik eta taldeka.
Familiar eta indibidualtasunean. Senideak izan gara eta ohekidek, dena batera.
Esiliatu eta emigrantea izan naiz ni, gertu eta urruti. Hemen eta hor. Deserrian bizi izan naiz, sortzen ikusten ninduen lur zatian.
Hil egin naiz. Behin eta berriz. Behin eta berriz berpizteko. Arnasa hartu dut, arnasestuka, plazerez eta minez...
Irribarrea ahoan dutenak gara.
Jostorratzak dantzan ipini dituztenak gara.*

JOSTORRATZAK DANTZAN DITUGU EUSKAL HERRIAREN BURUJABETZA FEMINISTARANTZ! *ONDARROAN, 2014ko abenduaren 13an*

Jostorrratzak dantzaz ditugu Euskal Herriaren burujabetza feministarantz Emakume Abertzaleon VI. Topaketa Feministak igaro dira eta dossier honetan landutako edukien bilketa egin dugu. Jada ematen hasiak garen eta aurrera begira emango ditugun eztabaidetan baliagarri izan dezagun.

Material bilketa honetan honakoa bildu dugu:

0. Sarrera: eztabaidaren kokapena.
1. Euskal Feminismoaren erronkak XXI.mendean. Sexu-generoaren ikuspegitik eman diren aldaketa prozesuen argazkirako gakoak.
2. Ekintzarako argazki konpartiturako Topaketetan ateratako lan taldeetako ideia nagusiak.
3. Topaketa Feministak, mahai-ingurua. Trantsizio feminista: intzidentzia politikoa, estrategiak eta boterea(k) laburpena.
4. Bilgune Feministaren hitzartzea.
5. Bizi eta landutakoaren kontakizuna. Ondorioak.
6. Topaketen inguruan idatzitako iritzi artikuluen bilketa.

0.- SARRERA

Euskal Herriko Bilgune Feminista sortu zenetik 12 urte igaro dira. Urte hauetan zehar, 2002.urtean definitu genuen plan estrategikoa ardatz izanik, egin dugu bidea. Baina Euskal Herria aldatu da, feminismoak aldatu dira, patriarkatuak forma berriak hartu ditu. Eta honen aurrean, gu, eta ordezkatzeko dugun Euskal Feminismoa, gure helburua den Euskal Herria feminista erdiesteko jardunean egokitzeko beharra sentitzen dugu. Horregatik, hausnarketa bati hasiera-jarraipena eman nahi diogu, zuekin.

Helburua:

Egungo egoeratik abiatuta, Euskal Herrian burujabetza feminista bateranzko ibilbidearen edota trantsizioaren oinarriak zehazteko eztabaida ematea. Oinarri hauek egoeraren gaineko diagnostiko erreal batetik abiatuko dira, jendarte eredu feminista baterako ibilbidea zehazteko.

Euskal Herriari ekarpena:

Ariketa hau, Euskal Herrian burujabetza feminista bat eraiki nahi duten pertsona guztiekin konpartitu nahi da, borroka feminista norabidetzeko ariketa gisa. Feminismotik Euskal Herriaren aldaketa etorriko dela sinisten dutenekin adostua izango da.

Nori zuzendua:

Subjektu nagusia Euskal Herri feminista eraiki nahi duten emakumeak dira. Baina bide honetan, zuzeneko bidelagunak emakume abertzale eta feministak lirateke, eremu anitzetan lanean dihardutenak eta haien jarduera feminista eremu horietan garatzen jarraitu nahi dutenak.

Bilgune Feministaren konpromisoa:

Euskal Herriko Bilgune Feministak proposatutako ariketa da hau, gure bokazioa eta ardurari eutsiz. Euskal Herrian burujabetza feminista baterako norantzan jartzeko ardura gure gain hartzen baitugu.

Hala, Euskal Herriko Bilgune Feminista sexuen zapalkuntza patriarkala gainditu eta jendarte eredu alternatibo bat eraiki nahi duten euskal emakumeen Bilgunea da. Euskal Herrian alternatiba feminista oso bat eraikitzekeo ardura hartu duen eragilea. Praktika feministen aniztasuna onartu eta ezberdintasun hauen gainetik eredu sozial berri baten eraikuntzarekiko eta aldarrikapenarekiko adostasuna bildu eta egituratu nahi du. Bilgunearen oinarriak beraz, bere aldaketarako proposamena eta sortzen duen sarea dira. Hau honela izanik, gaur egun, Bilgune Feministaren eginkizun politiko nagusia aldaketarako proposamen honen inguruko konpromisoak eta akordioak lortzea da.

KOKAPENA: Feminismoa XXI. mendean: ziklo aldaketa baten testuinguruan feminismoa ezinbestekoa.

Zergatik orain?

Egungo testuinguru ekonomiko, sozial eta politikoa egiturazko krisiak ezaugarritzen du. Kapitalismoaren, balioen, zaintzen krisia bizitzen ari gara Euskal Herrian zein mendebaldeko beste herrialdeetan ere. Troikaren gidaritzapean, Europako Batasuna eta Espainiako Gobernuaren erabakiz (Eusko Jaurlaritzak zein Nafarroako Gobernuak lagundurik) krisialditik ateratzeko neurri guztien oinarri gisa: austeritate neurriak ditugu. Abian jarritako neurri hauen bitartez, urteetan borrokaren bitartez irabazitako eskubideak galdu ditugu, bizitza duin bat izatea gero eta zailagoa izanik. Hala, krisi ekonomikoak eta neoliberalismoaren nagusitasunak eragin zuzena dute emakumeengan: egiturazko neurri murriztaile guztiek, emakumeen etxeratzea eta



Jostorrazak dantzan ditugu, Euskal Herriaren burujabetza feministarantz!
Emakume Abertzaleon VI. Topaketa Feministak

familia heteropatriarkala indartzea baitute helburu. Honenbestez, egoerari aurre egiteko orduan ere, politika feminista garatzeko moduetan kasu, eragin zuzena du testuinguru ekonomiko, sozial eta politikoak.

Euskal Herriari begiratuz gero, ziklo politiko berri baten aurrean aurkitzen gara. Urte luzez jardun den estrategia soberanistan, bake bidean, aldaketak eman dira bestelako herri eredu baterantz urrats berriak emateko asmoz. Beraz, egoera honetan, jendarte eredu alternatibo bat eraikitzeke dauden aukerak eta oztopo berriak identifikatzea beharrezkoa dela deritzogu.

Honez gain, feminismoen inguruko bilakaera teoriko esanguratsua eman da. Eztabaida bi gakoetan baitan planteatu daiteke: batetik, jendartearen egiturazko aldaketa ekarriko duen strategiaren zehaztapena. Bestetik, estrategia feministaren nolakotasuna erreibisatzea eta norabide berria marraztea. Bilakaera teoriko eta aldaketen aurrean, Euskal Feminismoak, bere norabidea eta jarduna definitu izan du, subjektuen inguruko eztabaidan adibidez. Baina erronka berrien aurrean aurkitzen gara, hau da, lortu nahi ditugun helburuak erdiesteko nola, nondik, norekin...- ariko garen birdefinitzeari ekin nahi diogu. Strategiaren nolakotasunaren inguruko eztabaida ugari daude feminismoetan, hauek Euskal Herriko testuingurura ekarri, eztabaidatu eta eguneratu nahi ditugu.


Euskal Herriko Bilgune Feministari dagokionean, sorreran, garaiko testuinguru politiko, ekonomiko eta sozialari erantzuten zion proposamen eta estrategia feminista eratu zen: PLAN ESTRATEGIKOA deiturikoa. Plan Estrategiko honek oinarritzko filosofia bat zuen: patriarkatua egiturazkoa bada alternatiba feministak egiturazkoa izan behar du. Honenbestez, identifikatu ziren jendartean zutabe diren eremuak (ekonomia, instituzioak, hezkuntza, komunikabideak) eta hauetan eraginez, eredu alternatibo bat eraikitzeke prozesua abiatu zen. Plan Estrategiko honek 3 dimentsiotan eragin nahi zuen: eredu berri baten eraikuntzarako oinarriak ezartzean, emakumeon bizi baldintza eta bizi duintasuna ziurtatzeko neurriak hartzean eta patriarkatuaren existentziaren onarpen sozialetik sortu dituen ondorio historikoen aitortza eta konponketan. Beraz, testuinguru berriak eskaintzen dizkigun aldagai guztiak kontuaz hartuz, Plan Estrategiko honen azterketa, berritzea eta nolakotasuna eztabaidatzera goaz.

Egun, esan genezake Euskal Herrian gizarte mugimenduetan oro har, militantzia ereduak aldaketak bizi dituela, faktore anitzen eraginez: konpromisoa, motibazioa, talde egitura baten parte sentiaraztearen gora beherak, arduen bateragarritasuna, lehentasunak, denboraren jabe ez garenaren sentsazioa, e.a. Beraz, Euskal Herriko Bilgune Feminista eratzean sortutako antolaketa ereduak ere, egoera zehatz eta mende berri baten hasierari erantzuten zion; sareko antolaketa izan zuen eta du ardatz. Gaur, hamabi urte baino gehiago pasa diren honetan, antolakuntza ereduak ere berrikuspen bat eskatzen digu, hartutako konpromiso horri heldu eta gaur egungo militatzeko zailtasunak kontutan hartuta gure jardun feminista zehaztekoa.

FEMINISMOTIK EUSKAL HERRIA ALDATU

“Feminismoa ez dago krisian” hitzetatik, lemetatik harago, errealitate dela deritzogu, zeinetan, azken hamarkadan, argi demostratu dugun feminismoa bizi bizirik dagoela. Edozein txoko eta bazterretan, edozein aldaketarako planteamenduetan ezinbesteko irizpide politikoan bilakatu da eta eredu sozial berri baten eraikuntzarako ezinbesteko osagaiak biltzen dituen ideologia eta borroka izanik. Geroz eta pertsona gehiago dira haien burua feministatzat dutenak, feminista gisa jarduten dutenak egunerokoan eta indar-ahalduntze hau, ez da bakarrik talde feministetan metatu, bizi-tza sozialeko eremu guztietara zabaldu da.

Horrek era berean erakusten digu, borroka eta teoria feministek gaitasun handia erakutsi dutela gaur egungo egoerara egokitzeko, XXI. mendean sortu zaizkigun erronka berrietara moldatzeko eta honez gain, egungo eredu ekonomiko, politiko eta soziala aldaketarako norabidean ipintzeko. Hala nola, soldatapeko lanen krisiak, zaintza eta lan erreproduktiboekin duen lotura azaltzeko; ingurumenaren iraunkortasuna zein elikadura burujabetza, zaintza eta gorputz eta lurren kudeaketa berri batekin elkar-lotzeko; hezkuntza sisteman, ezberdintasunen garrantziaz jabetzeko edota pertsonen identitate eta nahiak ertz askotatik begiratu daitezkeela ulertzeko. Feminismoak ahalbidetu digu jabetzea sexuak, generoak, sexualitateak, jatorriak, klaseak, e.a. jendartean dugun posizioa ezartzen digutela eta hortaz, ezinbestean sistema kapitalista patriarkalari aurre egiteko borroka eremu askoren uztartzea beharrezkoa dela. Era berean, borroka eremu



anitzetan jarduten dugun feministon arteko aliantza, elkarlana eta batera jotzeak behar beharrezkoak ditugula.

Honela, feminismoa, kapitalismo patriarkalak ezarri dituen dikotomia eta hauen hierarkizazioa puskatzeko bokazioarekin jaio zen eta hala jardun du. Gure gorputzak, ametsak, desioak, bizi proiektuak, e.a. baldintzatuta daudela. Emakumeen gorputzak konkistatutako gudu zelaiak direla, zeinetan, gure gorputzen gaineko kontrolak interes ekonomiko, politiko eta ideologiko jakin batzuei erantzuten dien. Gure kontu pertsonalak, ez direla hain pertsonalak, intimoak, norberarenak; horiek ere eraginda daudela, eraikiak direla, finean. Klean gertatzen denak, zuzenean sukaldean gertatzen denarekin erabateko lotura duela eta hortaz, ezin ditugula gure bizitza osatzen duten prismak banatu. Honenbestez, kapitalaren inposizio guztiak hausteko aukera ematen digu feminismoak, ezarritako arauak aldatzeko tresna nagusian bilakatu zaigu eta gure buruari ezarritako mugak gainditzen lagundu digu borroka feministak.

Geroz eta indibidualistagoa den jendarte eredu batean bizi garen honetan, kolektibotasuna eta elkarlana ezinbestekoa direla aldarrikatzen du feminismoak. Aldaketa ezinezkoa dela esaten duten horien aurrean, bilduz, jabetuz, elkartuz eta sormena erabiliz, aldaketa gure esku dagoela barneratuz, gure baitan eta pertsonen arteko harremanen aldaketan egikarrituko dugula iraultza.

Horregatik, feminismoa, ideologia eta borroka bat izatetik, proiektu politiko oso batean bilakatu dugu; alternatiba erreal eta eskaintza integral gisa ulertzen dugu feminismoa XXI. mende hasiera honetan. Euskal Herri berri bat eraikitzeko, kapitalismo patriarkalak ezartzen dituen zapalkuntza guztiak gainditzeko ezinbesteko mugarri. Borrokara eta aldaketara lotzen gaituen soka. Euskal Herritarrak erdigunean jarri eta guztien interesak defendatzeko alternatiba feminista eraikitzen ari gara!

1. EUSKAL FEMINISMOAREN ERRONKAK XXI. MENDEAN

Sexu-generoaren ikuspegitik eman diren aldaketa prozesuen argazkirako gakoak

EKINTZARAKO ARGAZKI KONPARTITUA

SARRERA

Jarraian landu dugun atalean, gure asmoa izan da, batetik, egungo egoeraren gako nagusiak identifikatzea, eta aldaketa sozial, kultural eta ekonomikoek aurreikusten duten horretan erreparatuz, azken urteetan sexu-generoaren ikuspegitik eman diren aldaketa prozesuen argazki bat egitea, bestetik. Argazki honetan hiru eremu izan ditugu kontuan: eremu sozio-ekonomikoa, eremu politiko-instituzionala eta eremu ideologiko-kulturala. Ekintzarako diagnostiko honek errealitatearen inguruko argazkia eskaintzen digu, eta bide batez, aukera ematen digu euskal feminismoaren erronkak XXI. mendean zeintzuk izan behar duten identifikatzeko, errealitatearen diagnostiko erreala batetik abiatuta, eta testuinguru berriak eskaintzen dizkigun aukerak eta arriskuak kontuan izanda.

Beraz, sortu dugun diagnostiko hau tresna bat da sexu-genero zapalkuntzak azken urte luzeetan izan duen garapenez solasteko, hausnartzeko; zehazki, patriarkatuak Euskal Herrian gure jendarteko eremu anitzetan izan dituen aldaera, forma eta adierazpenak identifikatzeko eta emakume feminista eta abertzaleon artean honetaz eztabaidatzeko. Ekintzarako diagnostikoaren helburua Plan Estrategikoaren berritzeko oinarri izatea da. Izan ere, aurre ariketa honetan identifikatzen ditugun gakoaren arabera erabakiko ditugu Plan Estrategikoaren helburuak, lehenetsiko dituen lan eremuak eta eraldaketa feministaren prozesuan norabide feminista zein izango den.

Beraz, ekintzarako argazki konpartitu honetan hau izan da gure lehentasuna: datuen zerrendatze bat izan beharrean, sexu-genero zapalkuntzaren ikuspegitik eman diren aldaketa prozesuen inguruko gakoak biltzea eta horiek konpartitzea.

Hori horrela izanik, honako hau lehen ariketa batean eginiko kontrasteetan jasotako ekarpenekin osatu dugu, segidan zuek guztiakin osatu nahi dena, gu guztion ekarpenekin. Eztabaidarako dokumentua da honakoa; zabalera laburra eta estiloan ere ulerterraza izateko saiakera egin dugu. Horretarako, emakumeon egoera ulertzeko gakoak eta aldaketa joerei begiratu nahi izan diegu. Jakitun gara, hala ere, gerta litekeela emakumeon artean dauden errealitate eta ikuspegi guztiak behar bezala kontutan ez hartzea. Emakumeok argi dugu ez garela kolektibo homogenea eta, sustatu nahi dugun estrategia feminista eraginkorra izango bada, sentsibilitate eta abiapuntu ezberdin horiek kontuan izan behar ditugula uste dugu.

Horrela, ekintzarako diagnostiko hau hiru zati nagusitan bereizi dugu:

- 1.- Eremu sozio-ekonomikoa: krisia, bizi baldintzen kaskartzea eta ditugun aukerak*
- 2.- Eremu politiko-instituzionala: berdintasun formala ezbaian*
- 3.- Eremu ideologiko-kulturala: ideologia patriarkalaz eta erresistentziaz*

1.- EREMU SOZIO-EKONOMIKOA: krisia, bizi baldintzen kaskartzea eta ditugun aukerak

Globalizazioak, kapitalaren mugikortasun askeak, politika ekonomiko neoliberalak, krisi ekonomiko sozialak artean, azken hamarkadetan herritarron egoera sozio-ekonomikoa guztiz baldintzatu dute. Eraldaketa prozesu esanguratsu batean murgildurik gaude, modernitateko instituzio zaharren zein harreman sozialen —eta horiek sortzen duten imaginario kolektiboaren— aldaketen aurrean. Globalizazioaren eta politika murriztaile horien guztien eraginez eta beldurra herritarron bizitzetan etengabe sustatzen denez, pobreen eta aberatsen arteko amildegia areagotzen ari da eta irabazleen eta galtzaileen arteko lehia bizi-bizirik dago. Lehia horretan emakumeok irabazleen bandoan ez gaudenez, aldaketa prozesu horiek guztiek nola eragiten diguten identifikatzeari ekingo diogu, bai eta Euskal Herrian euskal feminismitik ditugun aukera eta oztopo berriak zehazteari ere.

ALDAKETAK BAI, BAINA BETIKO ZUHAITZETIK SUSTRAITUTAKO ADARREN ITZALPEAN

Sexu-generoaren ikuspegitik, egungo jendartea aztertzeke unean (politikoki, ekonomikoki zein ideologikoki), aldaketak bizi izan ditugu emakumeon egoerari dagokionez. Aldaketa horiek ageriagoak izan dira emakumeon egoeraren inguruan sexuen arteko botere harremanetan baino. Hau da, oro har emakumeok subjektu autonomo gisa aitortuak izan gara (maila ekonomiko, juridiko eta politikoan), eskubideen parekidetasunean aurrerapena eman da eta gutaz zein gure egoeraz dugun pertzepzioan aldaketak eman dira. Hala ere, azken urte hauetan, eskubideetan izandako lorpen horietako dezente kolokan ditugu, krisi ekonomikoaren aitzakiapean eginiko egiturazko neurri murriztaileen eraginez.

Indarkeria sexista: mila aurpegi, mila ahots

Sistema patriarkalaren muinean, ordea, aldaketa esanguratsurik ez da eman, jendartearen egitura eta harreman orok (ekonomiko, sozial edo politiko) sexuen arteko banaketa soziala oinarri izaten jarraitzen baitute. Banaketa hori hierarkikoa da eta sexuen arteko botere harremanetan sustraitzen den zuhaitza da. Dominazioa eta hierarkia oinarri dituen egiturak bizirik dirau, dominazioak, irauteko, beti darabil indarkeria inplizituki. Eta hala bizi ditugu egunero-egunero emakumeok indarkeria egoerak. Emakumeon aurkako indarkeriak ez du mugarik, bizi garen sistema patriarkal kapitalistak funtzionatzeko duen ezinbesteko tresna da eta eredu honek sortzen dituen pertsonen arteko botere harremanak iraunarazteko eta mantentzeko erabiltzen duen baliabidea. Horregatik, indarkeria sexistak lehen mailako arazo politiko, sozial, ekonomiko eta kulturala izaten jarraitzen du. Izan ere, erasoak ez dira modu isolatuan eta bakartuan ematen, bizi garen jendartearen antolaketa sexistak ahalbidetzen eta sustatzen duen indarkeriaren erabileraz ari baikara. Horrela, egon diren aldaketak nabariagoak izan dira eremu publiko eta instituzionalean, eremu formala delakoan, eremu pribatu eta ez arautuan baino: lagunen taldea, harreman sozialak, etxetako sukaldeak, etab. 1

Gainera, Hego Euskal Herrian egoera sozial eta ekonomikoaren bilakaerak are tesitura larriagoan ipini gaitu. Izan ere, salaketek argi uzten duten moduan, eskubide laboral zein sozialen murrizketek pentsaezinak ziren atzerapausoak suposatzen dituzte indarkeria sexista gainditzeko urte luzez urraturiko bideetan. Eraso neoliberal patriarkal murriztaile hauek genero rola indartu eta dominazioa zein zapalkuntza areagotu baizik ez dute egiten gizon eta emakumeon artean, bizimodu guztiz prekarizatu eta zaugarri bat eskainiz. Azken batean, murrizketak alde guztietatik: zerbitzu publikoen deusezteak (osasun “publikorako” sarbidea mugatuz, esaterako), pentsioen erreforma, laguntza sozialen murrizketak, etab. Eta nola ez, berriro ere, egoerarik larrienean gaur arte zaugarrienak izan garen kolektiboak gaude: emakume migranteak, etxeko langileak, baserritarrak, sexu langileak, lesbianak, presoak, transak, pentsionistak, aniztasun funtzionala dugunak, alargunak eta abar.

Nork beteko ditu botere politikotik egiten ari diren zulo hauek? Nork ordainduko du sistemaren krisia? Nork pairatuko indarkeria eta pobrezia? Prekarietate egoera hauek eta hauen ondorioek, bere baitan bortizkeria izanik, indarkeria areagotu besterik ez dute egiten. Azken finean, hainbeste estututako jendarteak sistema

kapitalista neoliberala sustengatzeko beharrezko baitu mailaketa hierarkikoa, eta hierarkia hori mantentzeko era berean ezinbestekoa baita indarkeriaren erabilera.

Etxe barruko eta kanpoko lanen eta eginbeharren arteko amildegian

XX. mende amaieran eta XXI. mende hasiera honetan, aurrerapen teknologikoen, garapenaren, kontsumo aukera ugarien, komunikazio bide berritzaileen eta ongizatearen jendartean hezi eta bizi izan garela badirudi ere, gure jendartea osatu eta eusten duten zutabeak —hots, eremu publiko-politikoan lortutako eskubideak— arrisku bizian daude kapitala balioestearen eraginez. Neoliberalismoaren bandera hartu duten sektoreek eginiko promesak ez dira bete, eta egun, errealitate gordina erakusten digute: jendartea osatzen duten zutabeek bere horretan dira, merkatuaren, ekonomiaren mesedetan. Zertan? Bankuak erreskatatzen, zor publikoa areagotzen, langabezia sustatzen, zerbitzu sozialak murrizten, etab.

Eremu publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketa nabarmena iraunarazten da, egun oraindik ere, gure jendartean. Eremu publikoak interes komunari erantzuten dio, jendarte antolakuntzari eta baldintza politikoak edukitzeari, bertan erabaki guneetan parte hartzeko. Eremu pribatuan, aldiz, intimitatean, garrantzi handikoak ez diren, transzendentak ez diren ekintzak eta praktikak gertatzen dira.

Emakumeok, merkatuen interesei erantzunez, enplegurako sarbidea izan dugu, baina ezin ahantzi genezake, emakumeok eskubide horren alde eginiko borroka luzeari esker ere izan dela. Baina sarbide honek ez du eragin etxe barruko lanen banaketa eta aitortpena. Beraz, emakumeok etxetik kanpo lana eta etxean bertan ere lanean jarraitzen dugu. Errealitatea da emakumeok ordaindu gabeko lan erreproduktiboak eskaini diegun denbora murriztu egin dela, lan horiek zerbitzuen sektoreak bereganatu baititu eta enplegu bilakatu baitira askotan. Pribatizazioa sustatuz, zaintza lanak negozio iturri bilakatzeko saiakera etengabea da.

Baina merkaturatze honek ez du eragin lan horien aitortza; aitzitik, historian etxeko eta zaintza lanek izan duten balio eskasak eragin du sektore honetako langileek lan baldintza prekarioak izatea (soldata eskasa eta aldikako lanaldi partzialak). Nahiz eta, zaintza eta etxeko lanen zerbitzua ugaritu, ez dira ordaindu gabeko etxeko eta zaintza lanak amaitu, ez eta sexuen arabera lan banaketa ere.

Gainera, azken hamarkadetan, kapitalismo neoliberalak eginiko produkzio eta erreprodukzio lanen berregituratze horretan, zaintza lanen merkantilizazioak garrantzia izan du. Zaintza lanak eskaini eta erosi egiten dira, egun, merkatu ekonomian. Eta berregituratze horretan, eragin zuzena izan dute zapalkuntza anitzek, hala nola, klasea, etnia, generoa, baita bereizkeria sozial, sexual eta internazionalak ere. Etxeko lanen eta zaintza lanen berregituratzea ezingo genuke osatu, politika sozialek izan duten ibilbidea aipatu gabe.

70eko hamarkadaren erdialdean, estatu espainiarra Europako ongizate estatuaren eredu estandarretatik azpiratua zegoen; lehenengo gobernu “demokratek” ongizate estatu bat eraikitzeke bidean, egiturak garatu behar izan zituzten, eta horretarako politikak garatu zituzten. Jada, egungo krisia ageriko zela, gobernu espainiarrak laster alboratu zituen politika neo-keynesiarrak eta 2009. urte erdialdean Espainia izan zen banka erreskatatzen KGEE-ko (Kooperazioa eta Garapen Ekonomikorako Erakundea) herrialdeetan baliabide publiko gehien gastatu zituena (BPGaren %2 a). Beraz, Espainiako estatuak hartutako kanpo zorra, herritarren eskubideen urraketaren trukean egina da.

Honela, 80-90eko hamarkadetan politika sozialak ugaritu baziren ere, egun aurrerapen horien hondarrak ditugu eskuartean. Kontziliazio neurriei dagokienean, egungo kontziliazio neurriak ez dira nahikoak, emakumeak lan merkatua uztera bideratuak daude gehienetan. Egungo kontziliazio neurriak zerbitzu publikoen kontrako tranpa bat direla uste dugu, emakumeak zaintza eta etxeko lanak bere gain betikotzeko estrategia, hain zuzen ere. Helburua ezin da izan kontziliazio neurriak aldarrikatzea gaur ulertzen ditugun moduan, kontziliazio neurriek tresna bat izan beharko lukete. Aldarrikapen nagusia, guztiontzako lanaldi murrizketa izan beharko litzateke, hala, lanaren banaketa modu integral batean benetan egi bihurtu dadin. Hala ere, ikusi genezake egun dauden zerbitzu sozial horiek ere emakumeoi esker funtzionatu izan dutela (egun daudenek ere bai). Nork eraman eta ekartzen dituzte eguneko zentroetatik aitona-amonak? Nork

eramaten ditu eskolara seme-alabak?

Emakumeok soldatapeko lanetan murgiltzeak lan harremanak eta antolaketa soziala aldatu baditu ere — gizon batzuk norberaren burua zaintzeko autonomia eskuratu izana, zaintza lanen partekatzea negoziatzeko joera, gizonezko identitate tradizionala kolokan jartzen duten maskulinitasun berriak, eta abar—, ez du ekonomia antolatzeke eredu berri bat sortu. Gizonek oraindik ez dute benetako apurketarik egin, boterea ez dute askatu eta “laguntzaile” izaera ematen jarraitzen zaie zaintza eta etxeko lanen aferan. Egun oraindik bizi bizirik dirau eremu produktibo eta erreproduktiboaren arteko talkak.

Merkatu ekonomiak bizirik iraun dezan beharrezkoak dituen etxeko lan eta zaintza lan guztien aitortza eskasa dago oraindik orain gure jendartean eta nolabait, eremu publiko eta pribatuaren arteko dikotomia azken urteetan baino agerikoagoa egin da. Baina bizitza bizigarriak izan daitezen beharrezkoak diren zaintza eta etxeko lanak eremu pribatuan, etxetako sukaldeetan ehuntzen dira eta emakumeok gara nagusiki lan horien ardura dugunak. Hau ez da aldatu, eta jendartearen antolaketan ez da kontuan hartzen eremu pribatuaren eta publikoaren arteko dikotomiak sortzen duen amildegi hori.

Beraz, feminismotik zaintza lanak birbalorizatzeko helburuarekin lan egiten ari gara azken urteetan, zaintza lanak, jendartearen sostengu oinarrikoak diren heinean, jendarte antolaketa ororen erdigunean kokatzeko apustua eginez, maila teoriko, ideologiko eta pixkana praktikoan ere, eta neurri erreala exijituz. Aztertu beharko dugu egun feminismotik aldarrikatzen dugun zaintza eta etxeko lanen aitortza nondik etorriko den, nola eragingo dugun eta, honetaz gain, zer suposatzen duen jendarte antolaketaren erdian kapitalaren ordezkari bultzeko beharrezkoak ditugun zaintza lanak jartzeak eta nola lortu genezakeen.

Denbora neurgailu

Gaur egun, denbora, gure bizitzen neurgailu nagusietako bat da. Baina berdin balio al du herritar guztion denborak? Etxeko atetik kanporako lan jarduna neurtzeko ordulariak erabiltzen ditugu: lan egiten dut 8 orduz lantegian, fitxatu dut edo 4 orduz ariko naiz tabernan, etab. Baina etxe barruko jardunetan denboraren neurgailu bera erabiltzen al dugu? Etxe barruko zaintza eta erreproduktzioa bideratuko denboraren kontzeptualizazioa ez da berdina, ez da orduka kontatzen, ez du erabakimenik, ez du neurgailurik eta ez du memoria digitalik. Baina izan badugu emakumeok urteetan gure inguruko zaindari bermatzeko igaro ditugun segundo, minutu eta orduen memoriarik, gure gorputzetan gordeta dago.

Horrez gain, denbora esan genezake bizitza aldien arabera bereizten dela: haurtzarora-gaztarora (formakuntza), helduak (lan merkatua), zahartzarora (erretiroa-lan merkatua uzteko garaia); eta bereizketa honek erabat baztertzen ditu familiari (zaintzari) eskainitako denbora, denbora biologikoak, eta abar. Gainera, generazioen banaketa suposatzen du, eta generazioen artean hierarkizazio bat dago: ez da berdina erretiratua izatea eta gazte ekintzaile bat.

Horrenbestez, denborarena auzi politiko bat da. Eztabaida interesgarri bat dugu esku artean bizitza proiektuen eta ditugun tempusen arteko harreman sanoago baten alde norabidetzeko; denboraren inguruan pentsatzeko eta era berri batean sentitzeko eta bizitzeko aukera sortzea helburu duena. Bizitza denbora: denbora guztien duintasunaren, eguneroko bizitza birbaloratzearen eta erabakitzearen aldekoa.

EGUNETIK EGUNERA BIZI BALDINTZA KAXKARRAGOAK DITUGU

Krisi ekonomikoaz hitz egiterakoan, eta egungo egoera sozio-ekonomikoaren inguruko azterketa egitean, argi ikusten dugu horri zuzenki lotuta doazen hiru elementu kontuan hartu behar ditugula: bere izaera patriarkala, sexuaren araberako lan banaketa eta ezkutuko ekonomia zein zaintza lanak. Ongizate estatu baten desira besterik izan ez den errealtate batetik, eskubideen ukazioan oinarritzen den eredu batera pasa gara, non, prekaritateak gero eta zailagoa egiten duen bizi eredu aske eta duin bat garatzea.

Urteetan sistema kapitalista patriarkalak eginiko ibilbidearen ezaugarrietako batzuk hauek izan dira: kapitala erdigunean kokatzea, kontsumo arduragabea, espekulazioa, ustelkeria, banka lehenestea, jabetza pribatua

sustatzeko politikak, merkantilizazioa, produkzio eta merkantzia balioestea, naturaren ustiaketa basatia, eremu publiko-pribatuaren arteko bereizkeriak, lanen balioaren hierarkia, denboraren kontrola eta zaintza eta etxeko lanen ikusezintasuna. Horiek eragin dute langileon, izan enplegatua zein ez, kontabilizatua zein ez, bizi baldintzak okertzea eta bereziki emakumeona.

Murrizketak non-nahi

Kapitalismoaren, balioen eta zaintzen krisiaren testuinguru honetan, austeritate neurriak jarri dituzte martxan, urteetan borrokaren bitartez irabazitako eskubideak galdu ditugu bizitza duin bat izatea gero eta zailagoa da. Guraizeak hartu eta Espainiako gobernuak aspaldi hasitako bideari jarraitzen dio sutsuki; krisi ekonomikoaren aitzakian zirt-zart: eskubideak, zerbitzu sozialak, herritarren bizi baldintza duinak, urtetan eginiko borroken lorpenak. Inolako lotsarik gabe eta zigorgabetasun osoz, errudunek errugabeak kondenatzen dituzten antzerki gaizto honetan, emakumeok gain-saria daramagu gure lan eta bizi baldintzen urraketa prozesu honetan. Zaintzen krisia bizi dugu, artean, emakumeok gainkarga ikaragarria dugulako, denentzako oinarritzko beharrianak ziurtatuta edukitzeko ardura gure gain baitago.

Beraz, Espainiako gobernuak muturreko neurriak inposatu dizkigu dekretu bidez eta inolako eztabaidarik ez parte-hartzerik gabe. Hor ditugu besteak beste lan erreforma, pentsioen erreforma, hezkuntza (Wert legea) eta osasun sisteman murrizketa latzak —ongizate estatuaren hondamendia, alegia— BEZ-aren egungo igoera edota Mendekotasun Legean eginiko murrizketak. Azken hori aurrez eskasa zen: Emakumeak etxeko lanetan iraunarazten zituen eta ezkutuko enplegua sustatzen: lege honen ondorioz emakumeak kontratatzen ziren inongo eskubiderik gabeko lanetarako (emakume etorkinak proportzio altu batean), eta aldi berean, agerian utzi zuen bizitzaren sostengurako guztiz beharrezkoak direla zaintza lanak. Eta geroago sakonduko dugun arren, muturreko neurri baten berri izan dugu azken hilabete hauetan, TTIP-a, Europar Batasunaren eta Amerikako Estatu Batuen arteko Merkataritzako eta Inbertsiorako hitzarmen Transatlantikoa, alegia. Hitzarmen honek zuzenean eragingo digun herritar eta langile gisa ditugun eskubideei dagokionean.

Egiturazko neurri murriztaile guztiek familia patriarkala indartzea eta merkatuaren prekarizazioa dute helburu eta bide horretatik, merkatuan jarduten dugun langileon eskubideen, lan baldintzen, bizitzen prekarizazioan eragiten dute; eta bereziki, emakume langileon prekarizazioan, noski, emakumeon lan merkaturatzea modu prekarioan egina baita, lanaldi okerrenak, soldata baxuenak guk izanik. Horrenbestez, egoera hauek emakumeon kontrol tresna berri gisa identifikatzen ditugu. Gainera, lan merkatuan jarduten dugun arren, ez diogu etxeko lanak eta zaintza lanak egiteari utzi, eta emakumeon esplotaziorako forma berriak sortu dira arlo “pribatua” eta “publikoa” uztartuz. Hala ere, bizitzeke gaude, lan merkatuaren birformulazioaren eraginez, emakumeok zer-nolako enpleguak eta lanak izango ditugun. Esan genezake, krisialditik ateratzeko politika guztiak, finean, austerilketak (egiturazko neurri murriztaile hiltzaileak) direla.

Hortaz, egoeraren larritasunaz jakitun, errealitate sozio ekonomikoak berebiziko garrantzia hartzen du gure egunerokoan. Krisi ekonomikoak langabezia areagotzen du eta horri austeritate neurriak ezarriz eta politika sozialetan murrizketak egin nahi izan zaio aurre. Bidelagun ditugu datuak: Hego Euskal Herriko enplegu bulegoetan izena eman duten 215.390 langabeetatik %50,7k ez dute inolako saririk jasotzen. Sari arrunta %29,8k patrikaratzen dute, hura amaitutakoan jasotzen den subsidioa %16,9k, eta %2,7k beste laguntza txiki bat.

Lana sobera, enplegu duina falta

Emakumeok soldatapeko lanak ditugun arren, erregimen orokorretik kanpo dauden eremuak izaten jarraitzen dute zenbaitek, hala nola etxeko langileek, baserritarrek eta sexu-langileek. Lan horietan jarduten duten emakume asko migranteak dira, inolako babes juridikorik gabeak askotan, baldintza kaskarretan eta euren jatorrizko herrialdeetan zaintza eta erreproduktzio ardurak familiako beste emakume batzuen eskuetan utzi dituztenak, geure seme-alaba eta aitona-amonen zaintzaz arduratzera etorriak direnak. Horrenbestez, zaintzen kate trasnazionalak eratu dira.

Emakumeak geroz eta prestatuagoak gaude akademikoki lan merkatuan sartzerakoan. Alta, langabezia kualifikazio gehien duen kolektiboan emakumeok izan gara gehiengo eta kualifikazio gutxien duen kolektiboan emakumeak dira gutxienak. Horrek erakusten du kapitalak ez duela emakumeon prestakuntza baliatzeko borondaterik; eskaintzaren eta eskaeraren arteko desoreka dagoela. Badago emakume multzo txiki bat kualifikazio altuko lanpostuetan, behin haietan daudela, eredu berri bat bultzatu beharrean egungo egitura ekonomikoa iraunarazten dute. Beraz, botere eta goi karguetan oraindik ere bereizkeria egoerak daude. Horri lotuta, boterearen kudeaketari ere so egin nahiko genioke, ikusteko emakumeak boterearen jabe garenean etsaitzat sinbolizatzen gaituzte, eta boterearen jabe izateak duen kostua ez da azaleratzen; egoera horietan, emakume askok alde batera utzi behar izaten dituzte beste hainbat eremu eta nahi, beren profesioan aurrerantz joateagatik, bateragarritasun politika eskasak tarteko.

Jarduera tasan eta langabezia kopuruetan emakume eta gizonen arteko aldea gutxitzen ari da azken urteetan. Kopuruen parekatze hori gizonen adierazleak okertzearen ondorioa dela uste dugu. Are gehiago, emakumeonak lan indar subsidiarioa izaten jarraitzen duelako susmoa dugu eta langabeziara joango den kolektiboa emakumeena izango dela.

Emakumeok lan merkatu arautuan, lan eskubideen aldeko borrokan, zailtasun handiagoak ditugu, emakume gehienak zerbitzu sektorean kokaturik gaudelako, non borrokarako gaitasun gutxiago dagoen. Emakumeen arteko aliantzak sortu behar dira sektore horretan sistemak ezarri nahi digun prekarietateari aurre egiteko. Lan merkatuaren argazkia aldatu egin da azken urteetan eta hau zehatzago identifikatu behar dugu: Zein izango da gure etorkizuna? Kapitalismoak zer egin nahi du gurekin? Emakumeen errealitate ezberdinak kontuan hartu behar dira galdera horiei erantzuteko garaian, etorkinak, gazteak, helduak, etab. Beraz, feminismitik lan merkatuan dauden emakumeen egoerak eta gehiegikeriak salatu behar ditugu, espazio horiek ere aldarrikatu behar ditu feminismoak, lan merkatua ez baita gizonen esparrua soilik.

Horrekin batera, krisi ekonomikoaren aitzakian, emakumeon lan eta bizi baldintzetan modu positiboan eragin dezaketen neurri eta erabakiak alboratu egingo dira. Baina, egun, krisiaren ondorioz emakumeok jarduten dugun enpleguak suntsitzen ari dira, eta lan baldintzak okertzen, lanaldi partzialak ugaritzen, eta hirugarren sektorea suntsitzen; enplegu segregazioak bizirik jarraitzen du, bereziki, sektore feminizatuetan, horiek baitira soldata kaxkarrenak dituztenak. Lan berdina egiteagatik emakumeok % 30 gutxiago kobratzen dugu; pentsiodunen artean, berriz, %40koa da aldea; etxeko lanen eta zaintza lanen inongo aitortzarik ez da jasotzen; bizi ahal izateko bi edo hiru lekutan enplegatu beharra daukagu, etab. Historian zehar gertatu diren gainontzeko krisi egoeretan bezala, oraingoan ere emakumeok izango gara langabeziara edo prekarietatera joaten lehenak, zerbitzu publikoak suntsitzearekin batera.

2011tik aurrera emakumeen jarduera eta enplegu adierazleek bilakaera negatiboa izan dute Euskal Herrian. Emakumeon jarduera tasa %68,4 da gurean; EB-28ko batez bestekoa gainditzen du horrek, baina erreferente diren herrialdeengandik urrun gaude —herrialde horietan kontziliaziorako sistemak martxan dituzte—. Herrialdeka begiratuta, Iparraldeko lurraldeek dute emakumeen jarduera-tasa altuena. Aipagarria da, bestalde, lanaldi murrizteko kontratuen %80,9a emakumeei egiten zaizkiela, EB-28an baino zazpi puntu gehiago. Hori horrela, esan daiteke gure lan merkatuak oraindik ere ez dituela aukera eraginkorrak eskaintzen emakumea merkaturatzerako, ez eta bere autonomia ekonomikoa bermatzeko ere. (Gaindegia, 2014 uztaila)

Pobrezia datuak etengabe gora

2009tik 2013ko abendura arte gutxienez 114.576 pertsona gehiago egon zirela pobrezia egoeran nabarmendu zuen Gaindegiak iazko abenduan argitaratutako lanean. Jakinez pobrezia neurtzeko metodoen arabera, Euskal Herriko pobrezia-tasa %15-%30 bitartean aurkitzen da. Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko desberdintasunak aipatzekoak dira, Ipar Euskal Herriaren pobrezia-eremuaren proportzioa altuagoa baita, baina Estatu frantsesak “politika publikoen bitartez orekatzen” duela esplikatzen du Gaindegiak. Hego Euskal Herriaren aldiz, “pobrezia-eremuaren bilakaera negatibo” izaten ari da, baita azkartzen ari dela ere. 2010ean Ipar Euskal Herriko batez besteko soldata lan orduko Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren ginetik bazegoen ere, emakume gazteen kasuan (18-25 urte) eta barnealdeko gazteen kasuan ez zela horrela gertatzen. Zentzu orokorrean, errenta pertsonala altuagoa da kostaldean, Aturri herri elkargoan eta Hego Lapurdi zonaldean. Era berean, bi

zonalde hauetan ematen dira soldaten arteko desoreka handienak, beraz, horrek erakusten du, Gaindegiaren arabera, “batez besteko errentaren kalkuluaren atzean mikro-errealitate anitz ezkututzen direla”. Gaur egun sortzen den enplegua prekarioa da, batik bat, gazte eta emakumeontzat. Gainera, zenbait zonalde geografiko, hiriburuetatik urrun daudelako (eta garapen politika egokirik ez dutelako), ikusgai ez diren egoera larriak bizi dituzte, gazteriarekin eta pertsona nagusiekin loturikoak.

EUROSTAT eta Barne Produktu Gordina

EUROSTATen datuak baliatuz, 2012an Euskal Herrian 520.416 pertsona zeuden pobrezia edo baztertze arriskuan, biztanleria osoaren %16,6. Horrek esan nahi du 2009tik 2013ko abendura bitarte, 114.576 pertsona gehiago zeudela egoera honetan. Gaindegiak azaldu du egoera larrienean diren pertsonak gabezia material larriak dituen biztanleria dela, hau da 87.759 pertsona (biztanleriaren %2,8). Adierazle honen bilakaera, krisia hasi zenetik hazkunde nabaria bizi izan du, 2009 urtean eta, batik bat, 2011 urtean.

Europako hainbat ikerlari sozialek pobrezia kalkulatzeko beste neurgailu bat baliatzen dute. Lurralde bakoitzeko Barne Produktu Gordinarean (BPG) arabera egiten dute pobrezia indizearen neurketa. Pertsona baten diru-sarrerara bizi den herrialdearen BPGaren %37,5etik beherakoa bada, pertsona hori pobrezia egoeran bizi dela diote. Neurgailu hori Euskal Herrian erabili bazen, 2014.urte hasieran Euskal Herriko pobrezia muga 937 eurotan egongo litzateke hilabeteko soldatari dagokionez, edo 11.243 euroko diru sartzea. Hori kontutan hartuz, Gaindegiak azaldu du biztanleriaren %28,8a (900.000 pertsona) diru-sarrerara horien azpitik bizi dela Euskal Herrian.

Pobrezia mugan bizi diren pertsonen kopuruak gora egin du Euskal Herrian azken urteotan, eta lurralde guztietan gainera. Ez dira lanik gabeko pertsonak, ezta hezkuntza jaso ez dutenak ere: askotariko pertsonak osatzen dute multzo hori. Kasu askotan lan baldintzak okertu diren sektore ekonomikoetan lanean ari ziren pertsonak dira, edota euren diru sarrerak baino bizi maila altuagoa (etxebizitza, zerbitzuak...) duten zonaldeetan bizi direnak. Hego Euskal Herria: 215.743 lagun daude lan egiteko gai diren baina haren indarra non erabili ez dutenak. Kopuru antzekoa da 2007 eta 2013 bitartean EREek (Enplegu Erregulazio Espedienteek) kaltetutakoena: 238.000. Zenbakien atzean zonalde zehatzak ezkututzen dira: Ezkerraldea, Tuteralea, Enkartazioak, Sakana, Agoitzaldea... baina batez ere izen abizenak dituzten pertsonak dira. Eta horien artean hiru sektore dira ahulen artean ahulenen agertzen zaizkigunak: emakumeak, gazteak eta etorkinak.

Patriarkatuaren baloreen arabera moldatutako jendarte batean bizi garenez, gurea sexismoak egituratutako merkatu ekonomia da. Gakoa ez da zenbat emakumek egiten dugun lan aztertzea, non eta nola egiten dugun baizik. Emakumeok %25 (30 ere iritsi liteke) gutxiago kobratzen dugu gizonek baino, kontratu eskasagoen jabe dira orokorrean eta goi karguetan ardua duten emakumeak oso urriak dira.

Gazteei dagokienean, aldiz, enplegurako sarbidea geroz eta zailtasun handiagoz betetako aukera da. Gazteek gurasoen koltxoirik izango ez balute, zer izango litzateke gure jendartea? Gainerako adin tarteekin alderatuta gazteek langabezi tasa bikoitza sufritzen dute, %40 ingurukoa.

Etorkinei dagokienean, eskuinaren jardun politikoa ohikoa da jendarteko sektore ahulenen kontra jotzea. Horixe erakutsi digu Gasteizko alkate Javier Marotok, diru-sarrerak bermatzeko errenta mugatzeko abiatu duen sinaduren bilketaren bitartez. Beste behin, agerian utzi du pobreak pobreen kontra jartzea norberaren miseriak ezkutatzeko jokabidea indarrean dagoela.

Pobrezia egoerak ugarituz doazen heinean, familiaren sostengua ziurtatzeko, oinarritzko biziraupenerako beste gune batzuk (herri jantokiak, elikagaien bankua, etab.) ari dira sortzen. Muturreko egoera hauek zertarako baliatu nahi ditugun aztertzea garrantzitsua dela deritzogu, urgentziazko egoera hauei erantzutean aukerak zabaldu litezkeelako langile klasearen arteko elkarlana, sare sozialak ehuntzera bideratuta, adibidez.

Familia patriarkala ardatz

Familia heterosexual patriarkalak jarraitzen du izaten ekonomia sostengatzeko eta jendarte egitura zein ekonomia sistema antolatzeko instituzio nagusietako bat. Familia egitura guztiz hierarkikoa da: emakumeak ama eta emazte on izan behar dugu eta gizonak, senarrak aldiz, etxera dirua ekarriko duten subjektu aktiboak. Ama izateko eredu bakarra sustatzen eta inposatzen du patriarkatuak: etxeko kideen zaintzaz eskusiboki arduratuko den ama, jatordu guztiak prestatuko dituen ama, senar bat izango duen ama, etab. Jendartearen imaginarioan eta errealtatean familia egituretan aldaketa batzuk badauden arren, sistema beti saiatuko da familia eredu nuklearraren bizi era ezartzen familia homosexual edo lesbiane. Familia patriarkalak (“betiko familiak”) jarraitu dezan kontsumitzen, ezkontzen, erreproduzitzen, ekonomia antolatzeko espazio izaten.

Honez gain, egungo krisi ekonomikoaren eraginez, krisiaren salbatzaile den “betiko familiaren” apologia eta sustapena egiten ari dira sektore kontserbadoreena, gerrikoak estutu eta krisiaren arazoak etxean konpontzeko gomendatuz. Gainera, egoera horretan agente berri batzuk agertu direla antzeman dugu familien babeserako ardurak batzuetan lekualdatzen ari baitira, hainbat GKE-etara (Gobernuz Kanpoko Erakundeak) edota elizari lotutako talde asistentzialetara. Hala ere, ezin ahaztu genezake, egoera honetan berriro ere emakumeoi etxeko ekonomiaren antolaketa eta gestioaren ardura ari zaigula egokitzen.

Familia ereduari dagokionez, berriz, esan genezake aldaketa sozialen ondorioz familia ereduak edota elkarbizitza unitateak ugaritu eta berriak sortu direla, baina uste dugu familia bera, instituzio ekonomiko (kontsumo gunea eta sexuaren araberako lan banaketa) eta ideologiko gisa (bikote harremanak eta maitasun eredu patriarkala) ez dela zalantzan jarri. Familia arau oso hertsiko instituzioa izaten jarraitzen du: bikotea, seme-alabak, ezkontza.

Eta elkarbizitza unitate anitzak gero eta gehiago izan arren, guraso lesbianak, ama izatea erabakitzen ez duten emakumeak, gay-ak, guraso bakarrak, kultur-artekotasuna oinarri dutenak, eta abar, familia eredu berrien aitortza sozial eta juridikoa ez doaz bat.

Familia ereduan azken hogeita hamar urteetan eman den aldaketa eta atzera itzulera bat aipatu nahiko genuke, komunitatearen ideari lotuta dagoena. Garai batean, generazio desberdinen uztarketak osatzen zuten familia: aitona-amonek, gurasoek, seme-alabak, eta abar. Nolabait, azken urte hauetan familiak nagusiki seme-alabek eta gurasoek osatu dituzte. Nahiz eta joera hau ere krisiaren ondorioz aldatzen ari eta berriro aitona-amonak, izeba-osabak ari diren familiako babes sarean parte-hartze izaten, maiz, kide hauen denbora eta energia ikaragarri zaintza lan horietara eskainiz. Horrela, bizitzen ari garen bizi-baldintzen okertzearen eraginez, bizi unitateen arteko talkak sortzen ari dira eta muturreko bi erantzun mota behintzat artikulatu dira: familia nuklearra batetik, eta familien arteko elkartasun sareetan oinarri dutenak bestetik, azken horietan emakumeon parte-hartzea nagusia izanik oinarrizko beharren inguruan. Aldaera hauek aztertzea interesgarria dela deritzogu.

Naturaren pribatizazioa eta elikadura burujabetza

Kontsumo basatian oinarritutako jendarte eredu honetan, merkantzien eta zerbitzuen balioespena lortzeko, naturako baliabideak eta nekazarien eskubideak ustiatzen ari dira. Naturako baliabideak etengabe ustiatzen dabilta eskuineko boteredun politiko eta ekonomikoak: lurrak desjabetu, produkzioa erak inposatu (monokultiboak), hazi transgenikoen erabilera behartu, kutsadura ikaragarria, nekazaritzara bideratutako politika ekonomikoak murriztu, mendi eta natura baliabideak azpiegitura handiak egiteko erabili (fracking-a, AHT, goi tentsioko linea), etab. Herritarren bizilekua, jatekoa, herritar askoren ogibidea mugatzen ari dira, herritarren beharrei muzin egiten, etekinak lortzea beste helbururik gabe.

Mugapen horiek guztiek baldintzatzen dituzte elikagaien ekoizpen prozesuak, bai eta, kontsumo ereduak ere. Zer kontsumo eredutan gaude? Edota zer eta nola kontsumitzen dugu? Horiexek nekazal eremuko sektore askotarikoetatik egiten ari diren hausnarketarako galderak. Gure gorputza zaintzeko, elikadura osasuntsua beharrezkoa dugu. Zer jaten dugun bezain garrantzitsua da produktu hori nola ekoizten den aztertzea eta jakitea.

Bide honetan, elikadura burujabetzaren inguruan ekarpen teoriko eta praktikoa jaso ditugu azken aldian, laborantza sistema ekologikoa, osasungarria eta ekoizpen lokala beharrezkotzat jotzen dituztenak. Euskal feminismitik gure jardun bidea zehaztean egiten ari diren ekarpenak ezagutzea eta horietaz eztabaidatzea beharrezkoa ikusten dugu.

TTIP, CETA eta merkataritza libreko hitzarmenak eskubideak murrizten dizkigute

Europar Batasunaren (EB) eta Amerikako Estatu Batuen (AEB) arteko Merkataritzako eta Inbertsiorako hitzarmen Transatlantikoak (TTIP, ingelesezko siglekin), eta EB eta Kanadaren arteko Hitzarmen Ekonomiko eta Komertzial Integralak (ingelesez CETA) ezin argiago adierazten dute merkataritza eta inbertsioen inguruko negoziazioa antidemokratikoa dela, eta soilik korporazio multinazional handien onerako ari direla eztabaidatzen.

Iritzi publikoari ez zaio ia informaziorik ematen; lobby korporatiboak, aldiz, jakinaren gainean daude. Hitzarmen hauek gauzatzen badira, enpresa multinazional handiek eskubide eksklusiboa izango dute gobernuak salatzeko arbitraje-auzitegi pribatuetan (hauek sistema legislatibo nazional eta europarretatik independenteak izango dira).

Gainera, hitzarmen horiek osasun eta segurtasun arloan indarrean dauden estandarrak murriztu egingo dituzte, Atlantikoz gairako araudien harmonizazioa medio, eta gobernu nazional eta tokikoek praktika kaltegarriak galarazteko duten boterea ahulduko dute, esaterako fracking-ari edota transgenikoen erabilerari dagokionez.

Oinarritzko zerbitzu publikoak gutxitu edo pribatizatu egingo dituzte, eta eskubide sozial zein laboralei eragin egingo diete. Politika hauek eredu sozialaren gainbeherarekin lotuta daude, eta beren helburua oinarritzko zerbitzu publikoak pribatizatzea da, batik bat austeritatearen, krisiaren eta lehiakortasuna hobetzeko ustezko behararen izenean.

Emakumeok kaltetuenak

Emakumeon bizi baldintzek okerrera joko dute maila guztietan eta horrek jendarte osoaren bizi kalitatean eta osasun demokratikoan eragingo du. Alta, azken hamarkada hauetan egin dugun bidea eta metatu ditugun jakintza eta eskarmentua baliatu behar ditugu eredu ekonomikoaren eraldaketa geureganatzeko: lanaren banaketa, aberastasunaren banaketa eta produkzio bitartekoen zein politika ekonomikoaren kontrola. Gainera, egoera sozio-ekonomiko larriena bizi duten emakume kolektiboek —migranteak, gazteak, adinduek, guraso bakarreko familiak, eta abar— bereziki jasaten ari dira eredu ekonomikoaren eraginak.

Aldaketa kuantitatibo eta kualitatiboak, eredu patriarkala aldatu ez duten heinean, gain-kostu bihurtu dira emakumeontzat: gehiago inbertitu behar izaten dugu norberaren prestakuntzan, lana lortzeko aukeran, lanpostua mantentzeko edo promozionatzeko ahaleginean, eta lan eremuko eskubideen defentsan, askotan gure buruaren zaintza bigarren edo hirugarren planoan uzteraino

Krisi iraunkorretik ihesi

Horrek guztiak ere eragiten du emakumeok krisi iraunkor baten baitan ehuntzen jarraitzea gure bizitzak. Ekoizpenean alternatibak eraikitzen ditugu, hala nola, elikagaien prestaketa, pertsonen zaintza, ekonomia solidarioa, komunitateko irriti zein mugimendu sozialetatik sortutako bestelako komunikazio alternatibak sortzea, sexismorik eta bereizkeriarik gabeko herri jai parekideen alde lanean jardutea eta arau moralak apurtuz bestelako elkarbizitza unitateak sortzea. Gure amonen zein beste hainbat borrokalari feministen memoria osatzen saiatzen gara. Guk ere, bide horretatik, praktika kontra-hegemonikoak garatzen ditugu, eta horiek herri boterearen alternatibetan batzen dira, zeinak natura eta humanoen arteko armonia birsortzen duten eta galdera honi buruz pentsatzera eta eztabaidatzera garamatzaten: nolakoa den edo izan beharko lukeen bizitza merezi duen bizitza.

Bizi ereduaren aldaketa sakonen aurrean gaude eta sistema patriarkal kapitalistak bortxaz ekarri gaitu gaur bizi dugun aldaketa honen tenorera. Baina, arauak puskatu eta sortzeko, eraikitzeko, asmatzeko, beldurrari aurre egiteko, komunikatzeko dugun gaitasunetan sinesteko eta feminismoaren sokari indartsu eutsi eta tiratzeko garaia da. Orain, gakoa da estrategia feministak kontuan izan behar duela norantz norabidetu nahi duen bizi dugun aldaketa hau, erdigunean bizitzak eta pertsonak izango dituen jendarte antolaketa baterantz urratsak emateko.

Beraz, gure denboraz, bizi unez, gure produkzioaz, gure zaintzaz, gure gorputzez, gure lanaz, gure desioez erabat jabetu nahi duen sistemaren eta estatuen aurrean gaude. Baina hori sostengatzeko, sistemak gu behar gaituela kontziente egin eta izan behar dugu. Gu gabe kapitalismoa ez delako ezer, patriarkatuak ezingo bailuke iraun. Inposaketaren eta indarkeriaren bidez egoera hau sostengatzera behartzen bagaituzte ere, guk aldaketa gure mesedetan baliatzeko aukera badugula sinistu behar dugu, inoiz baino ozenago. Emakumeak gizon eta emakumeen arteko paktuan transakzio objektuan bilakatu gara. Krisi sistemikoak eragindako eredu eta arau zaharren krisian, hau da, aldaketa sozial guzti hauen erdigunean gaude.

2.- EREMU POLITIKO-INSTITUZIONALA: BERDINTASUN FORMALA EZBAIAN

Korporazio eta finantza teknokratek espazio politikoa hartu dute, herritarron bizitzak baldintzatzen dituzten erabakiak gero eta urrunago hartzen dituzte, boteredun ekonomikoen interesen mesedera daude erabaki asko eta asko eta borroka sozialen kriminalizazioa eta militarizazioa handituz lortu dute inposaketa horiekin guztiekin aurrera jarraitzea. Sektore eskuindar hauek indartzen eta elikatzen dira: kontserbadorismoan igoeraren, fundamentalismo erlijiosoaren erasoaren, emakumeen kontrako mota guztietako erasoaren, gure gorputzen merkantilizazioa eta kontrolaren, eta emakumeok eskubideetan irabazitako lorpenen ahultzearen bitartez indartzen dira.

Beraz, sektore ultraeskuindar boteretik jarraitzen du feminismoaren lorpen formal horiek kolokan jartzen eta berauen ezarpena baldintzatzen; ustez lortuta genituen hainbat eskubide formal galtzeko zorian gaude neoliberalismo patriarkalak abian jarri dituen aldaketa ekonomiko, politiko eta berrindartze ideologikoak direla medio (Hego Euskal Herriko erreforma laborala, finantzen erreforma, hezkuntzarena, abortuaren legearen aldaketak, etab.)

Eta eremu honen azterketa egiteko garaian ezin ahanzi dezakegu, egungo gure jendartean, instituzio publiko politikoek artikulatzen dutela herri hau: aurrekontuak, fiskalitatea, osasuna, hezkuntza, etab. Beraz, instituzioen dimentsioa handia da eta hauen inguruan ditugun kezkek, zalantzak, galderak, balorazioak biltzeko unea dugu hau.

MUGIMENDU FEMINISTA ETA INSTITUZIOEN ARTEKO HARREMANA

Mugimendu feministak bere aldarrikapenak instituzio publiko politikoetara eramanez, emakumeen bizi baldintzak hobetze aldera, nahiz eta hasieran eragina ez zen ikaragarria izan, lekuan leku aldaerak izan baitzituen, eginiko lanaren emaitza nabaria da.

Mugimendu feministak instituzioekiko jardunari deritzon izan dituen eztabaidak egun irekita jarraitzen dute. Galderak argiak dira: Nolakoa izan behar du instituzio publiko politikoaren jarrera mugimendu feministaren aldarrikapen eta praktikekiko, mugimendu feministaren lana xurgatzeko arriskuaren aurrean? Nolakoa izan behar du harreman horrek? Baina erantzunak ez dira bat ere sinpleak, nahiz eta eztabaida honi eustea beharrezkoa dela deritzogun.

Instituzioek mugimendu feminista aintzakotzat hartzea ezinbestekoa dela uste dugu, eta bestetik, mugimendu feministak bere jardunari, bideari eustea.

Urteetan mugimendu feministak gai honi dagokionean izan dituen eztabaien laburpen argigarri bat lagungarri gisara:

1984: II Euskal Herriko Jardunaldi Feministak. Instituzio publikoetan emakumeen eskubideak bermatzeko hutsune nabaria azpimarratu zen. Urte hauetan sortu zen Emakunde berdintasuna bermatzeko tresna instituzionala. Nafarroan beranduago sortzen da Emakumeen Institutua eta Ipar Euskal Herrian ez da halakorik sortu.

1994: III Euskal Herriko Jardunaldi Feministak: Bi bide autonomo hartzen dira: batzuek, instituzioetatik lan egiteko apustua egingo dute: alderdi eta hauteskunde plataformetan. Besteak aldiz, kalea berreskuratzeko praktikari jarraituko diote.

2008: IV. Jardunaldi Feministak: Instituzionalizazio prozesuak indar handia hartu zuen eta ezinbestekoa da berriro ere mugimendu feminista indartzea, eta hor jartzen dira indarrak.

EREMU POLITIKOAN DUGUN PARTE-HARTZEA AREAGOTUA

Emakumeok eremu politiko eta instituzionalean dugun parte-hartzea azken hamarkada hauetan emendatu egin da, baina horrek ez du eskubideen bermea ekarri, inondik inora ere. Hala ere, oraindik ere, itxurazko parekotasunaz hitz egin daiteke. Emakumeok bigarren mailako postu politikoak geureganatzen ditugu,

botere ekonomikoa, juridikoa eta politikoa gizonezkoek dute, eta eremu horretara iritsi diren emakumeek ez dute bestelako eredu bat erakusten.

Arlo politiko eta legegilean emandako aldaketa horiek harreman sozial eta kulturalak aldatu dituzte. Gutxi dira sexuen arteko botere harremanak ontzat ematen dituztenak. Gehiengoak ez du zilegiztat hartzen sexuen arabera berezikeriarik. Bilakaera hau aurrerapen gisa hartu daitekeen arren, arazo berriak erakartzen ditu, inork gutxi onartuko baitu diskriminazio edo indarkeria egoerak bizi edo ezagutzen dituenik. Joera horrek emakume gazteen artean duen eragina aztertzea dela uste dugu (maitasun erromantikoa). Honi loturik emakume gazteek birtza politiko eta publikoan duten parte-hartzeaz aipamen bat egin nahi dugu: gazteriak aldaketa politiko eta sozial garrantzitsuak eragin ditu historian zehar, aldaketa prozesu ezberdinen motorra izan da.

Azken garaian, parte-hartze moduak eta eremu politikoarekiko jarrerak aldatu egin dira. Egungo emakume askok ez dute pairatu beste euskal emakume batzuek pairatu dituzten menpekotasun sozial, ekonomiko eta familiarak. Ez dute bozka eskubidearen alde edo sexualitatea dutela aldarrikatzeko borrokatu behar izan. Beste talaia batetik bada ere, patriarkatuarekin txoke egiten dute eta, kontziente edo inkontzienteki, beren esperientziatik feminismoa birdefinitzen ari dira. Horri horrela, belaunaldien arteko elkartrukatzeko eta ikaste-prozesua ezinbestekotzat hartzen dugu. Egungo emakume gazteek oztopo handiak dituzte aurrera egiteko, emakume gisa eta gazte gisa eta beren errealitatea kontuan hartuko duten parte-hartze markoak eskatzen dituzte, mugimendu feministan eta jendartearen.

UKAZIOEK BADIRAUTE

Horrez gain, iruditzen zaigu eskubide zibil eta politikoen aferan, ukazio ikaragarria bizi dutela, batetik, Hego Euskal Herria etorri diren beste herrialdeetako herritarrak, oinarritzko eskubideak eta baliabideak lortzeko aukera ere ukatzen baitaie. Adibide gisa aipatu genezake, paperak legearen barnean ez dituzten migranteei osasungintza publikoan artatuak izateko eskubidea ukatzen zaien lege bat dugula mahai gainean. Pertsona hauen oinarritzko eskubideetako bat oztopatzen du horrek: osasun zerbitzu publikorako aukera izatea. Eta noski, segurtasun eza oinarri duen egoeran bizi dira asko eta asko.

Eta bestetik, espetxean dauden herritarrak ere kontuan hartu beharko genituzke, bai Euskal Herrian bai hemendik ehunka kilometrora dauden euskal herritarrak. Euskal Herrian konponbidez hitz egiten den garai honetan, dispertsioarekin amaitzea eta giza eskubideak bermatzea ezinbestekoa dela deritzogu. 2014ko iraileko Etixeraten datuen arabera, momentu hauetan, 476 pertsona daude Euskal Preso Politikoen Kolektiboan (EPPK) eta horietatik 67 dira emakumeak. Dispertsioaren ondorioz, frantses zein espainiar estatuko edozein kartzeletara bidali dituzte presoak, etxetik gertu egoteko duten eskubideari muzin eginez. Kasu honetan, emakumeek pairatzen duten isolamendua handiagoa dela azpimarratu behar da. Edozein emakumek (EPPKko kidea izan beharrik gabe) bizitzen duen egoera da dispertsioarena, hain zuzen, haietzako egokitutako kartzelak ez edukitzearekin, sorterritik urrun dagoen beste kartzela batera bidaltzen dituztelako. Baina preso politikoen kasuan oraindik larriagoa da egoera hau, edonora bidal baititzakete.

Horrenbestez, pentsatzen dugu beste gakoetako bat datzala erabakietan parte-hartzean, boterea izatean eta botere hori askatasunez erabiltzean: Erabakitzeko eta erabaki horiek kudeatzeko ahalmena izatean, alegia. Feminismoak egiturazko kritika egiten dio botere politikoari: pribatutzat hartzen diren esparruek (familia, sexualitatea, zaintza, eta abar.) duten izaera politiko mahai gainean jarri du behin eta berriro, eta feminismoaren izaera politiko jendarte eremu anitzetara zabaldu. Baina instituzio publiko politikoen jardunari dagokionez, eztabaida mahai gainean dugu. Instituzioei zer-nolako funtzioak egokitzen dizkiogu? Zertarako behar ditugu instituzioak feministok? Zergatik mugimendu feminista ez da mintzakide politiko gisa errekonozitua izan instituzioen aldetik? Zer egin behar dugu intzidentzia politiko areagotzeko? Instituzioetan zeharlerrotasunak estrategia gisa balio digu? Nola baloratzen dugu? Nola elkarbizitzen dira mugimendu feminista eta instituzio publiko politikoa? Galdera dezente ditugu, eta erantzunak emateko eta artikulatzeko saiakera egiten jarraitu behar dugula uste dugu.

BERDINTASUN POLITIKEN ITZALA

Interesgarria da aztertzea nola instituzio publiko politikoetatik berdintasuna lortzeko estrategiak garatu dira: hala nola, ekintza positiboa, mainstreaming-a, jabekuntza estrategiak, gobernantza eta politika feministak. Horrek guztiak aukera berriak ireki ditu emakumeok subjektu gisa gure buru-gorputzak onartu eta sentitu ditzagun eta aurrera begira, aldaketan parte aktibo izan gaitzen eremu anitzetatik eraginez, nahiz eta mugak ere antzematen ditugun, batez ere erabakietan eragiteko orduan, ahalmen gutxiko markoak baitira, emakume kontseiluak kasu. Euskal Herrian, estrategia hauen garapena eman da, nahiz eta lekuan leku eta instituzio publiko politikoen borondatearen arabera oso desberdinak diren lantzen diren helburuak zein bideak. Nola bizi ditugu estrategia hauek gure herrietan? Marko horiek eragiten dute tokiko administrazioaren erabaki guneean? Parte hartzen al dugu mugimendu feministatik? Zer aukera eta zer nolako oztopoak dituztela ikusten dugu? eta abar. Gero eta berdintasun teknikari gehiago daude instituzioetan lanean, gure herrietako Udal zein Foru Aldundietan, eta horietatik batzuk feministak dira. Eztabaida desberdinak izan ditugu berdintasun teknikarien paperaz eta mugimendu feministarekin sortzen diren harreman zubiez. Baina adostasunik ez dugu orain arteko ibilbidean.

Landutako estrategiei dagokienez, esan genezake emakumeon ahalduntzea izan dela politika horien helburu nagusietako bat. Eta horrek eragin du emakume profil oso anitzek parte hartzea jabekuntza pertsonal eta kolektiboaren ideologizazioaren bide honetan. Baina hutsune bat badago batzuetan; hain zuzen ere, ez dela inongo harreman zubirik eraikitzen jabekuntza politika batzuen eta mugimendu feministaren artean, eta horrek elkar ez ezagutzea, elkar ez topatzea eragiten ditu. Beharrezkoa da mugimendu feminista eta instituzioetan lanean dabiltzan teknikari feministen arteko harreman zubiak eraikitzea, lidergo feminista eskuratzeko beharrezkoa den urratsa baita.

Jabekuntza, jabetze pertsonal eta kolektiboa, bai. Indibidualismoak harrapatuta gaituen egunerokoan beste gako bat dela deritzogu: pertsonala politikoa delako ideari heltzea. Pertsonala politikoa delako mezua gauzatzeko eta kolektibizatzeke zailtasunak daude, indibidualismoaren indarra ikaragarria baita. Baina, gure ustez mezu hau berreskuratzea garrantzitsua da, gure emozioak, bizipenak, gorputzak, denboraren kudeaketa, eguneroko kontuak eta abar, pertsonalak izateaz gain, auzi politikoak ere badirelako.

Egun, argiki esan dezakegu botere ekonomiko eta politikoa gero eta urrunago ditugula, neoliberalismo patriarkalaren eraso ekonomikoek, politikoez eta ideologikoez emakumeenganako indarkeria adierazpen bortitzenak ugaltzea ekarri baitute azken aldiotan (autoestimua galtzea, bizi baldintzak okertzea, etab.); eta nola ez, genero rolen betiketzea edo iraunaraztea. Murrizketen ondorioz, rol horiek indartu egin dira eta sistemak indartze hau bilatzen du sistema berak bizirauteko.

EUSKAL HERRIAN ZER BERRI?

Gainera, Euskal Herriari begiratzuz gero, ziklo politiko berri baten aurrean aurkitzen gara. Urte luzez jardun den estrategia soberanistan, bake bidean aldaketak eman dira bestelako herri eredu baterantz urrats berriak emateko gogoz. Prozesu politikoari begira logika politiko berri bati eman zaio bide. Oraindik orain, gure herrian erabakitzeko eskubidea eta autodeterminazioa eskubidea ukatua dugu. Eta bide honetan eman diren urratsei begiratzuz gero, kezkarria iruditzen zaigu Euskal Herriko prozesu demokratikoan emakumeen parte hartzerako neurriak alde batera zokoratuta egotea, eta norabide horretan oraindik behintzat ikuspegi feminista ez dela txertatu ziklo politiko berrian. Prozesu demokratikoak herritar guztien eskubide guztiak bermatu eta sentibilitate guztiak konponbidearen partaide egin behar ditu. Biztanleri erdiak jasaten duen oinarrizko eskubide demokratikoen gabezia aintzat hartzea, ez isilaraztea, natural ez bihurtzea ezinbesteko baldintza da. Bide horretan ezinbestean emakumeon eskubideak kontutan hartu, aitortu eta bermatzeko neurriak hartzea ezinbestekoa izango da benetan prozesua demokratikoa izan dadin.

Gatazka politiko armatuaren konponbidean emakume aktiboak garen heinean, gure parte hartzea aukera berdintasunean eman dadin neurriak definitu eta konponbidean parte hartuko duten eragile politiko, sindikalak eta sozial guztiekin lantzea beharrezkoa ikusten dugu. Gatazka honek sortu dituen ondorioak emakumeoi nola eragin izan diguten aztertu, aitortu eta sortutako kaltea ordaindu behar digute. Gatazko

politiko armatuak zein ondorio izan ditu emakumeontzat? Emakumeok dispertsioan zein paper jokatu dugu? Zaintzaileak izan gara eta zainduak? Bide honetan, uste dugu ikuspegi hau txertatzeko eta kontuan izateko egin diren saiakerak anekdota gisa ez hartu eta duten aitortza politika eman behar zaiela.

Baina, egoera honetan, jendarte eredu alternatibo bat eraikitzeke dauden aukerak eta oztopo berriak identifikatzea beharrezkoa dela deritzogu. Azken batean, formalki ez bada ere, jendarte eredu antagonikoen arteko gatazka puri-purian dago Euskal Herrian.

Beraz, Mugimendu Feministak jarraitu behar du emakumeen eskubide zibil eta politikoak defendatzen, jendarte eredu antagonikoen arteko gatazkan ordezkari aitortua izan dadin. Baina bide honetan, azken urteetan eman diren aldaketa guztiak kontuan hartzea beharrezkoa dugu (instituzioetan berdintasun politikak ugaritzea, etab.) aurrera begira gakoak eztabaidatzeko.

3.- EREMU IDEOLOGIKO-KULTURALA: IDEOLOGIA PATRIARKALAZ ETA ERRESISTENTZIAZ

Desagertu baino, ideologia patriarkala garatu dela bistakoa da. Gainontzeko eremuetan bezala ideologia patriarkalak ideologia kapitalistarekin bat egiten du. Kontsumo subjektu eta objektu bilakatu nahi gaituzte, eta harreman sozialak, aldiz, merkantzia. Kontsumo ereduari lotuta, emakume-gizon ereduak, rol estereotipatuak, indartzen ari dira. Adibidez, modaren eraginez Princlandia guneak sortu dira, neskei egun batez printzesa izan daitezen aukera eskaintzen zaien: modeloak izango balira moduan aurpegia eta azkazalak pintatzen dizkiete, arropa bereziak jantzen dizkiete eta modako izarren gisara pasarelan ibilarazten diete gora eta behera, aurrera eta atzera.

BALIO ETA ROLEN BILAKAERA

Gorputz-objektuak

Egun, sexu-generoen araberako estereotipoa mantentzen da. Zaila da honen inguruko diagnostikoa egitea, aldaketa horiek modu ezberdinean bizi eta baloratzen baitira adskripzio sozial eta politiko ezberdina (adina, klase, erlijioa, ideologia) duten kolektiboan aldetik. Beraz, oraindik ere, rol sozialak modu ezberdinean egozten zaizkie gizonari eta emakumei. Eta irudikapen horiek, egungo egitura sozial patriarkalean, emakumeon menpekotasun historikoa mantendu, besterik ez dute egiten. Neska eta mutil ereduak indartu egin dira, eta identitatearen definizio hau jada bi urterekin hasten da definitzen, beraz, oso gaztetxotatik hasten den prozesua izanik. Gazteen artean tradizionalki femeninotzat hartu diren estereotipo batzuk emakumeari egozten zaizkie modu sistematikoan —onginahia, dependentzia, otzana edo adeitsua izatea—, baina, emakumeek gizonari ezarritako balio tradizionalak ere hasi dira bereganatzen (norberaren helburuak eta nahiak lortzeko ekimena eta boterea). Aitzitik, gizonak ez dituzte emakumeari tradizionalki ezarritako balioak zentzu berean bereganatu, eta bereganatzen dituztenak hori bai ez dute onarpen sozialik, emakumetzen diren gizonak baitira: boterea galtzen duten gizonak, hein batean.

Apaizek, epaileek, jakintsuen biltzarrek, jaungoikoen, legeek, medikuek, ohiturek, estatuek eta beste makina batek egunero zanpatzen digute emakumei gure gorputzengan erabakitzekeo dugun eskubidea. Gure gorputzak, hauskor, erabilgarri, objektu pasibo gisa hartzen dituzte botere gune politiko, ideologiko zein ekonomikoek. Eta horretarako, estatuek, kapitalismoak eta patriarkatuak bitarteko asko darabilte hainbat herrialdetan emakumeon gorputzaren kontrolaren bitartez interes ideologiko, ekonomikoak eta ideologikoak erdiesteko. Gure territorioan, gure gorputzean, aske sentitu ez gaitezen irudikatzen gaituzte... Printzesak, objektu erakargarri eta ez erabaki-askagarri gisa. Etxeko lan eta zaintza lan guztien arduradun eta erreproduktorako makina gisa. Gure gorputzetan pastiliez gainezka eta gure gorputzaren gaineko ezagutza eta erabakiak ukatuz, (besteak beste, haurdunaldian adibidea dugu), gure burua zaintzeko gai izango ez bagina bezala. Gure gorputzaren eta bizitzaren preso irudikatzen gaituzte, batzuetan barrote fisikoez zeharkatua egon ez arren eta haurrak izango bagina bezala tratatzen digute, zeinetan, gure bizitzetan, senar, mediku, aita-estatuen onespena, baimena behar dugun gure bizitzak burujabe bizi eta aurrera eramane ditugun.

Emakume argalak, lirainak, ilerik, zelulitisik, zimurrik gabeak erakusten dizkigute egunero eta etengabe sistema patriarkalak eskuartearen dituen tresna desberdinen bitartez. Emakumeon irudi estereotipatu etengabe gure jendarteko agente sozializatzaile anitzen bitartez sustatzen da, baina batez ere, publizitatearen bitartez. Ikaragarria da jendartean dagoen irudi emaria, gehienak iragarkiak, eta jada gure auzoetako eta herrietako paisaia naturalaren parte bihurtu dituzte. Emakumeak ipuinetako, jokoetako pertsonaiak gara askotan; fantasiako munduko objektuak. Eta gizonak aldiz, ez dira Adam, Neptuno edo otso gisa irudikatzen. Hortaz, publizitateak sexu, klase eta kultura arteko bereizkeriak iraunarazi eta indartzen ditu; errealitate bakarra eta unibertsa (mendebaldarra, diruduna, klase erdi-altukoa, botereduna, heterossexuala, edertasun irudi estereotipatuak, etab.) irudikatzekeo asmoz. Edertasun irudi estereotipatuaren jazarpenak eta presioak pertsonengan eta batez ere emakumeengan izugarriko ondorioak ditu. Aipagarria da presio horren eraginez gure jendartean eta batez ere emakume gazteengan eragina duten anorexia eta bulimia buruko gaixotasunak. Oso ugariak daude gure jendartean eta hau ere sistema patriarkalak emakumeokiko duen beste jazarpen

era bat dela deritzogu. Sinestarazi digute, edertasun fisikoaren gainbalioaren eraginez, gorputzen aniztasuna bertute izan beharrean muga gisa hartu eta gorputz homogeneizatuak izatea dela lorpena.

Baina zehaztu nahi genuke, emakumeon irudi estereotipatuak orokorki bi aukera eskaintzen dizkigula emakumeoi: emakume onarena (ama) eta emakume gaiztoarena (puta). Eta hau sistematikoki erreproduzituko da estereotipoen aldaera anitzetan. Baina, estereotipo anitz badaude emakumeon inguruan eta hauek, klase sozialaren, elementu etnikoen eta ideologiaren arabera egokitzen doaz. Adibidez: etxeko andrea, exekutiboa, emakume gazte ekintzailea, neska zaharra, euskal emakumearen irudia eta abar. Nola bereizgarritzen gara euskal emakumeok? Kirol janzkerak, elementu etnikoek, belarritakoek, ile orrazkerak, eta abar.

Beraz, sistema patriarkal kapitalistaren aldetik estereotipo eta balio jakin batzuk etengabe inposatzen zaizkigun arren, bada beti egon den errealitate bat ere, erresistentziarena. Emakume asko gara inposatzen zaigun irudi estetikoaren barnean kokatzen ez garenak: praktika kontra hegemonikoak ditugunak; ez depilatzeagatik, harri jasotzaile izateagatik, tripa bistan ibiltzeagatik, ilea ez tindatzeagatik, eta abar. Eta betiko legez araua haustea latz ordaintzen dira askotan, zigor sozialaren bitartez: begiradak, azalpenak eman beharra, eta abar.

Arrakalak haitzean

Sexuen arteko harremani dagokienez, eredu heterosexuala da araua, eredu eta hegemonia, denok heterosexualak izatera bideratuta gaude. Baina, identitate sexualetan zein sexualitatea-erreproduktzioa binomioan eragiten ari diren identitate eta sexualitate eredu berriak azaleratu dira.

Gero eta gehiago gara, ama bakarrak, lesbianak, harreman monogamikoetan sinisten ez dugunak, amatasuna bizitzeko era berrietarako hautua egiten dugunak edo ama izan nahi ez dugunak. Horrek orain arteko harreman sozialetan eragin du eta estrategia berriak azaleratu ditu. Eta bide honetatik sakontzen eta baliabideak eta tresnak sortzen jarraitu behar dugula ikusten dugu.

Amatasunaren inguruan teoria eta praktika berriak sortzen ari dira eta laburrean bada ere aipatu nahiko genituzke adibide apur batzuk. Teknologia berriak aukera berriak eskaintzen ari dira, amatasunaren teknologizazioari bide emanez. Hala, emakumeak erreproduktzio garai onenetan daudela obuluak kendu, gorde eta amatasun denbora atzeratuz aurrerago ama izateko aukerak eskaintzen ari dira hainbat ospitale. Honek zer dakar? Teknologizazioak kontrola al dakar? Teknologizazioan ere obuluen salerosketa dugu aztergai gisara. Zein baldintzetan dira emakumeak obulu emaile? Bestalde, emakumeak, amatasuna eta naturaren lotura esentzialaren inguruko hausnarketak beti egon diren arren, azkenaldian joera horiek gorantz doazela antzematen dugu. Emakumeoi naturatik gertuen gisara kokatzen gaituzte, lotura berezkoak sortuz. Nola ikusten dugu guzti hau?

Horren inguruan hausnartzeko beharra agerikoa da, beraz. Hala ere, identitate eta sexualitate eredu berriak azaleratu izateak ez ditu harreman sozialak aldatu, askotan harreman berri horietan ere kode heterosexualaren arauak birsortzen baitira, eta dependentsian, kontrolean, eta abarretan oinarritutako harremanak eraikitzen.

Maitasun erromantikoa

Gainera, bada harreman afektibo sexualetan eragiten duen egitate garrantzitsu bat: maitasun erromantikoa. Egungo jendartean maitasuna ulertzeko eta harreman sexu-afektiboak eraikitzeko eredu bakarra saldu digute txikitatik: ipuinen, filmen, telesail zein abestien bitartez. Eredu hegemoniko hori heterosexuala da, eta bikoteko pertsona bakoitzak bere rola (femeninoa edo maskulinoa) betetzen du. Oso ohikoa da mutilak neska erreskatatzea telesailetan, edo bikotearekin egon ezean aserik sentitzen ez den Disney-eko pertsonaia, baita eta pertsona bakar eta berezi hori (bat eta bakarra balego bezala) ezagutu eta maitemintzean amaiera zoriontsua duen filma ere (laranja erdiaren teoria). Ondorioz, asko kostatzen zaigu beste elementu batzuetan oinarritutako erreferente berriak eraikitzea. Egun, mendebaldeko jendartean, maitasuna modu estereotipatuan ulertu eta bizi dugu, gainbaloratua dago, eta, ondorioz, harremanak askotan ez dira

osasuntsuak. Dependentzia eta posesioan oinarritzen dira, eta, ondorioz, indarkeria baliatzen duten harremanak sortzen dira, besteak beste.

Horrenbestez, maitasun erromantikoak hiru gako hauek ditu: batetik, bikotea gure bizitzako oinarrizko elementu gisa aurkezten zaigu eta adin batetik aurrera bikotea lortzeko eta familia osatzeko presio soziala nabaria da. Bestetik, normalean bikote idealizatuarekin amesten dugu eta idealizazio horretan jarritako itxaropenak irrealak dira; zure parte dela sentitzea, pentsatzen duzuna asmatu behar uste izatea, zure nahi eta behar guztiak aseko dituela eta abar, baina tamalez edo zorionez, ez dago printze urdinik eta guztia ez da arrosa kolorekoa. Azkenik, eredu idealizatu horretan, baldintzarik gabeko maitasuna balore positibo bezala agertzen zaigu; zuek emango nuke edo utziko nuke. Modu horretan, bakoitzaren proiektuak eta nahiak alboratzen dira askotan, eta bestearen bizimodua etengabe eta erabat moldatzen, norbere burua alboratzeraino edota nor zaren ere ahazteraino. Esan genezake, azken aldian, maitasun erromantikoaren adierazpen berriak atzeman daitezkeela; hau da, zuk, zure bizitza eta nik neurea, baina esan non eta norekin zabilzan. Askatasunaren ideologiaren itzalpean, botere harremanak iraunarazten dira, eta diskurtso horrek arrisku handiak izan ditzake.

HEZKUNTZA

Hezkuntza sistemak, sozializatorako oinarrizko bitartekoa dela jakinik, gaur egun dauden ereduak birsortzeko baino jendartearen dauden arazoak gainditu eta jendarte bera eraldatzeko tresna izan beharko luke. Hau da, hezkuntzak pertsona aske eta integralak sortu behar ditu eta jendarte justuago bat lortzen lagundu behar du, sexuen arteko eskubide eta aukera berdintasuna bultzatuz. Baina errealitatea bestelakoa da.

Emakumeek paper desberdina jokatu dute hezkuntzan historian zehar. Mendebaldeko kulturetan, hezkuntzarako eskubidea ukatua izan dute emakumeek urte luzez. Hezkuntza sistemaren oinarrizko antolaketa fase desberdinei begiratzen badiegu, ondorengo ikusiko dugu: hasiera batean gizonezko dirudunek soilik zuten hezkuntza jasotzeko aukera; emakumeak etxean geratzen ziren eta garapen intelektuala beraien kabuz eta kasu askotan ezkutuan egin behar izaten zuten. Beranduago, hezkuntzarako eskubidea lortu arren, neskek eta mutilak generoaren arabera hezkuntza jasotzen zuten. Gela desberdinetan biltzen ziren, curriculum zeharo desberdina zuten. Finean, neskek esparru pribaturako (etxea, familia ...) eta mutilak esparru publikorako (produktzioa, bizitza soziala ...) prestatzen zituzten. Mugimendu pedagogiko berrien sorrerarekin batera, ikastetxe mistoak sortu eta neska-mutilak espazio berdina konpartitzera pasatu ziren. Horrela, neskek eta mutilak, biak gela berean elkartu ziren curriculum berarekin, baina aldatu gabea; hau da, eredu maskulinoan oinarrituta.

Lorpen garrantzitsua izan zen bere garaian, askok uste zuten aldaketa horrek arazo guztien konponbidea ekarriko zuela, eta hurrengo belaunaldien arteko sexu parekidetasuna ziurtatuko. Denborak kontrakoa esan digu: neskek eta mutilak elkartzean, ez zen inolako neurririk hartu jendartearen bertan sexu batek bestearekiko jasaten zuen zapalkuntza ekiditeko, eta hala, ikastetxean ere jendartearen nagusitzen diren ereduak, estereotipoak, balioak eta abar. Urte askoan zehar errepikatu direla ikusi da.

Eskola mistoak hezkuntzan eredu sexistak gainditzeko ez zituela ikusirik hezkidetzaren mintegiak hasi ziren zabaltzen EAeko zonalde gehienetan eta Hezkuntza Sailak ardatz estrategiko bezala hartu behar izan zuen hezkidetzaren Curriculumak eta testu liburuak aldatzeko konpromisoa hartu zen, hau da ageriko curriculumak, baina ezkutuan zuten garrantziaz ere, ohartu ginen: esparruen erabilera, hezkuntza sexista, estereotipoak eta abar. Berdintasun legearekin batera berdintasunaren ispilua ere, hezkuntzara ailegatu zen eta hezkidetzaren lantzeko baliabideak murrizten joan ziren eta hasitako bide hezkidetzarekin gelditu zen eta hainbat kasuetan atzera egin zuen. Berriro ere gai hau jorratzea irakasle kontzientziatuen eskuetan geratu zen.

Egun, arazoa ez da emakumeak hezkuntzara, irakaskuntzara, ikerketara eta kudeaketara iritsi ahal izatea, baizik eta jardueraren horietan duten lekua, bizi duten egoera: hautatzen dituzten titulazioak eta ezagutza arloak, beren ibilbide akademikoak eta profesionalak, botere guneetan duten estatusa, irakasten diren edukiak, erabiltzen diren metodologiak, baliabide didaktikoak, ebaluazio irizpideak eta tresnak, onartzen diren arautegiak eta aurrekontuak, azken finean, hezkuntza jardueretan oharkabean geratzen den sexu bereizkeriak emakumeen

auto-kontzeptuan eta lorpen zein itxaropenetan duen eragina. Egun, hezkuntza sistemari dagokionez emakumeak modu masiboan sartu dira hezkuntza sisteman. Matrikulazio tasak parekoak direla esan daiteke. Pixkanaka, gero eta emakume gehiago lanbide eta hezkuntza eremu maskulinoetan sartu dira (medikuntza, kimika, biologia, genetika, arkitektura, etab.). Eta krisiaren ondorioz, historikoki emakumeon eremu izan diren batzuetan mutilen kopurua emendatzen ari da (haur hezkuntza, turismoa, etab.). Alta, joera horiek ez dute ikasketa segregazioa gainditu, baina bai erakusten digute emakume askoren eta gizon batzuen ahalegina eta ausardia espazio berriak bereganatzeko. Emakumeek eskuratu duten hezkuntza prestakuntzaren eta titulazio mailaren ondorio soziala (botere postuetan, diru sarreretan, enpleguetan) ez da gizonek dutenaren mailakoa. Horrek eramaten gaitu esatera hezkuntza sisteman emakumeak duen presentzia eta jendartearen botere guneean duen presentzia ez daudela orekatuak. Pedagogiari dagokionez, sexuen arteko parekidetasuna eta hezkidetzaren irizpideak zabaldu dira. Ahalegin edo eskaera honen gainetik, hezkuntza instituzioak —bai eta familiak ere— sexuen araberrako jarrera estereotipatuak birsortzen ditu. Beraz, gaur egun, ikastetxeak mistoak izateak ez du esan nahi parekidetasuna dagoenik: ikasgaien ikuspegia erabat androzentrikoa da, osagai sexistak presente daude bai ageriko eta bai ezkutuko curriculumean. Errealitate bat da, egun gero eta ikastetxe gehiagotan, egoera honen jakitun izanda, martxan direla hezkidetzaren programak, gehienak ere, ikastetxearen borondatearen eta duten aurrekontuaren arabera. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ugariagoak dira, orain Eusko Jaurlaritzak ere martxan jarri baititu hezkidetzaren saio pilotuak hainbat herritan, nahiz eta oraindik asko dagoen egiteko. Nafarroan aldiz, egoera bestelakoa da, irakaslearen borondatearen esku edo tokiko udalen borondatearen esku gelditzen da. Gainera, egun, Espainiako gobernuak onartu berri duen hezkuntza erreformaren eraginez, ikeragarria izango da eragina. Ikasleak ekoizteko makina bilakatzeko tresna gisa hartzen ditu eta erlijioa, Espainiako konstituzioa, eta abar irakastera behartuko dute euskal irakasleak. Bestalde, esan genezake bestelako hezkuntza eredu baten aldeko gero eta proiektu gehiago sortzen ari direla, haurren eta gazteen osotasunean, aukeretan, gaitasunetan zentratu eta norberaren autonomia indartzeko helburu duten proiektu alternatibo gehiago.

Hortaz, azken hamarkadetan hezkuntza sistemak harreman sozial patriarkalak birsortzeko duen funtzioaren inguruko eztabaida soziala egon da. Hezkuntza borroka feministarako esparru bihurtu da. Elkartasunean, parekidetasunean eta askatasunean oinarritutako jendarteak sortu nahi dugunez, garrantzitsua dela deritzogu hezkuntza komunitatearen (hezitzaile, guraso, material sortzaileen, e.a.) elkarlana eta konpromisoa bultzatzea. Hala ere, hori nola ehundu eta forma nola eman eztabaidatzea eta lantzea garrantzizkoa ikusten dugu.

KULTUR ADIERAZPENAK

Kulturak jendarte-kohesioa lortzeko eta, horrenbestez, identitate kolektibo partekatua osatzeko baliabideak eskaintzen dituela esan daiteke. Azken finean, kulturak birsortzeko eta bizirauteko bideak ematen dizkio bere burua halakotzat duen edozein gizarte-talderi. Ideia horretatik abiatuz gero, kulturari buruzko azterketa orok uzten dizkigu agerian kulturak boterearekin dituen loturak. Izan ere, kulturalki nahiz sozialki modu egokian birsortu nahi badu jendarte-talde batek, baliabide sinboliko batzuk kudeatzeko, arautzeko, sortzeko eta babesteko ahalmena —boterea— izan behar du.

Gure herrian nagusitzen den kultur industria hegemonikoa da, sistema patriarkal kapitalistaren menekoa eta mundu globalizatuaren menekoa. Errealitatea, bakarra eta unibertsala (mendebaldira, diruduna, klase erdi-altukoa, botereduna, heterosexuala, musika komertzial kontsumitzailea, bestseller heroikoen jabe dena eta abar) irudikatzea eta kulturaren bitartez jendarteak ber-elikatzen, erreproduzitzen jarraitzea helburu duten ekoizpenak dira. Baina badira bestelako kultur adierazpenak, gero eta gehiago zorionez.

Kultur adierazpenek oso eremu zabala hartzen dutenez, analisi honetan, orain arte landu izan ditugun gakoak aipatu ditugu; hain zuzen ere, kultura-tradizioa-erritual-festen inguruko gogoeta eta kultura feministaren inguruan antzematen ditugun aurrerapausoak, alegia. Aurrera begira, gakoak identifikatzen jarraituko dugu, analisisetan sakonduz eta aurrera begirako diskurtso eta eztabaidak zehaztuz. Garbigailuak eta lapikoak festetan ere ez dabilta euren kabuz

Jaietako alkandora distiratsuak eta galtza zuri-zuriak. Gosari, bazkari eta afari mundialak. Baina, garbigailuak

ez dabilta euren kabuz, ezta lapikoak ere: etxean, elkartean; ahizpek, amek, izebek edota amonek ez dute gozatzeko tarte gehiegirik izaten jaietan.

Eta plazan? Harri jasotzaileak, aizkolariak, pilotariak, dultzaineroak, txarangak, kontzertuak, zezenak. Gizonak dira ekimenen protagonista eta ikusleen gehiengo ere. (Eta emakumeak?) Gainera, hitz hauek ez zaizkigu arrotzak iruditzen “Ipurdia, titiak ukitu dizkit hark” edo “txarrera ligatzen dabil ..”, gure jaietako errealitatea baitira.

Festak eduki sinbolikoa duten jendarte eta kultur adierazpenak dira: errealitatearen adierazle kondentsatu modukoak. Jaiek, norbanakoa kolektibora hurbiltzen dute; prozesu honetan jokoan sartzen diren sentsazio eta emozio anitzen bidez. Gure ustez festak bizitzaren erdigunean daude, baloreen munduarekin erabateko lotura dutelako, herriaren nortasuna, jendarte egitura eta hortaz, bertan ematen diren zapalkuntza eta diskriminazioak adierazten dituztelako.

Gaur egun jaiek eta erritoek, jendarte ordena erreproduzitzen dute, egungo hierarkiak, botere harremanak, diskriminazioak, rol banaketa eta emakume eta gizonen irudi idealizatuekin batera. Horregatik deritzogu, garrantzitsua dela, jaietan ere ikuspegi feminista txertatzen joatea eta egun dauden egiturazko zapalkuntza guztiei aurre egingo dion lana egitea. Jendartearen eraldaketa bidean, bertako ohiturek ere norabide berdinean joan behar dute. Tradizioa ez baita ezer hertsia, monolitikoa, esentzian oinarrituta; bizirik dagoen zerbait da. Honen ingurua hausnartzea beharrezkoa dela deritzogu, gure herrian “tradizioaren” izenean emakumeon eskubideak sistematikoki urratu izan baitira, adibide batzuk aipatzearen, hortxe ditugu alardea, Baztango mutil dantzak edo ezpata dantza bera. Festak gure kultura eta jendartearen beste adierazpen publiko bat dira; pasadizo hutsez harago, gure kultura eta jendartearen beste adierazpen publiko bat dira. Beraz, jendartean eman nahi ditugun aldaketak ere gure herriko festetan isla izan behar dute, jaietan ere kultura birsortu eta aldatzeko gaitasuna dugulako. Guk eraikitakoa guk alda dezakegu.

Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, izan ere, lanketa honek berarekin baitakar norberak bere buruarekin egin beharreko lana (guztio erreproduzitzen baititugu botere harremanak eta bereizkeria egoerak edo konplize garelako) nahiz esfortzu kolektiboa (gure jarduna zein balioren arabera gidatzen dugun, alegia, zein irizpide ezartzen ditugun hau edo bestea antolatzean, zein mekanismo ditugun zapalkuntza egoerei aurre egiteko, eta abar).

Honela, gure jai eredu alternatiboaren prestaketa, antolaketa, eta garapena bera, prozesu kontziente bilakatu behar dugu zirrikitu guztietatik, eta ezarria den ordena soziala eraldatzeko baliatu: nola antolatzen den jai batzordea (militantzia eredu, parte hartze eta erabakitze mekanismoak, lan banaketa), egitaraua osatzeko orduan jarraitzen ditugun irizpideak (zein ekintza motak balio diguten parte-hartze parekide eta zabala bermatzeko, nola ziurtatuko dugun herritar guztio gozatu ahalko dugun egitaraua osatuko dugula), eta azkenik, gure jai ereduarekin talka egiten duten egoera diskriminatzaile edo erasokorrei aurre egiteko alde aurretik adosten ditugun erantzunak edo protokoloak.

Kultur adierazpen feministetan aurrera

Hala ere, azken urte hauetan aurrerapauso handiak eman ditugula deritzogu; bai kultur eremu ezberdinetan emakumeen parte hartzeari dagokionean (bertsolaritzan, musika taldeetan, literaturan, arte adierazpen desberdinetan, argazkilaritzan e.a.) baina baita ikuspegi feminista txertatzeari begira ere, gero eta ekimen gehiago daude: Feministaldia, Emarock, Emakumeok Plazara, literatura eta feminismoaren arteko lanketa, irakurle talde feministak, bertsolaritza eta feminismoaren arteko zubi lana, musika talde feministak, abesti feministez osatutako taldeak, artea eta feminismoaren inguruko jardunaldiak, proiektuak, eduki feministetan oinarritutako liburuak e.a. Etengabea da emaria, nahiz eta oraindik hainbat eremutan parte hartzeari begira alde nabaria dagoen. Pixkanaka gehiago gara, praktika kontra hegemonikoak garatuz kulturaren birdefinizioan sakontzen goazenak.

KOMUNIKABIDEAK

Jendartean komunikatzeko sortu diren gailu berriek komunikatzeko erak aldatu dituzte: informazioa jaso eta eskaintzeko erak, alegia. Komunikatzeko erei dagokionez, komunikazioaren aroan bizi garela esan genezake, nahiz eta batzuetan inkomunikaziorako bide ere badiren gailu teknologikoak. Egun telebista analogikoen garaia atzean utzi eta telebista digitalak, Internetek, sareek eta Whatsapp-ak komunikatzeko erak aldatu dituzte. Egun azkartasunak eta berehalakotasunak garrantzi handia hartu dute gure jendartean. Komunikazioa nola ulertzen da? Nola harremantzen gara? Informazioa nola jasotzen dugu eta eskaintzen? Hartzaille huts izatetik, informazio emaile izatera pasatzeko aukera eskaini digute komunikazio tresna berriek. Horrek, aldaketa handia ekarri du informazioaren tratamenduan eta batez ere, informazioaren jabetzaren inguruan, aukera eta arrisku berriak baititugu eskuartean.

Horrela, komunikabide guztiekin alderatuta, gehien erabiltzen direnak sare sozialak dira. Sare sozialak herritarrentzat ezinbesteko komunikazio esparru bihurtu dira, baina, batez ere gazteentzat. Neskek eta mutilek, adina gora-behera, sare sozialen erabilera berezitua egiten dute, neskek adierazpenerako erabiliz eta mutilek erabilera argi eta garbi instrumentalagoa eginez. Nerabeek maizago erabiltzen dute Tuenti-a; gazteak, aldiz, facebook zaleagoak dira. Whatsapp mezularitza aplikazioa, sare sozial bat izan ez arren, komunikazio bide gogokoena da adin guztietan. Bikote harremani eta sare sozialei dagokionez, Whatsapp aplikazioaren kontrol sentipena handia dago gazte zein nerabeen artean. Whatsappek bikotekidearen artean gatazka eta jeloskortasuna sorrarazten dutela dirudi, askotan komunikazioa erraztu baino zailduz eta harreman ez sanoak sortuz. Beraz, sare sozialen erabilerak dituen aukera eta arriskuak identifikatu, sare sozialen erabilera indarkeria sexistatik askatu, eta sexuen arteko harreman parekideak izan ditzagun bultzatzeko estrategiak zabaldu eta hobetu beharko lirateke.

Bestalde, ohiko komunikabideek, hala nola telebistek betiko lepotik dute burua, izan publiko edo pribatu; hau da, ikusleko kopurua ahalik eta handiena izan dezaten nagusiki tele-zaborra ematen jarraitzen dute. Telebista saio guztiz komertzialak sortzen dituzte, ia lan gehiena kanpoko produktoreen eskuetan utziz eta nola ez, estereotipo eta rol guztiz sexistak indartuz.

Hala ere, Euskal Herrian, euskarazko komunikabideei dagokionez, batez ere, idatzian, izugarritzko aurrera pausoak eman direla uste dugu informazioaren trataera ez sexista bermatzeko ahaleginean, bai eta baita mugimendu feministaren ahotsa eta erreferentzialtasuna lantzeko garaian ere. Hori oso positiboa izan dela iruditzen zaigu.

Horrenbestez, ideologia patriarkalak bitarteko anitz erabiltzen ditu bere helburuak lortzeko. Ideologia patriarkala beharrezkoa da egun ere, emakumeen esplotazioa, dominazioa eta bereizkeria iraunarazteko eta gatazka soziala ekiditeko. Diskurtsoa aldatu da, baina haren eragina berbera da: menpekotasun egoeraren aurrean emakumeon kontzientzia soziala eta politikoki antolatzeke eta eraldatzeko gaitasuna eragozteke. Mugimendu Feministak azken hamarkadetan teoria eta bitarteko desberdinak erabili ditu sexuen arteko harremanak eta emakumeon egoera sozial eta ideologikoa eraldatzeko. Ahalegin horiek ez dira nahiko genukeen bezain aitortuak izan, baina dudarik gabe, aldaketak eragin dituzte. Hala ere, sistema patriarkal kapitalistak bere bilakaera propioa izan du. Horregatik, asmatu behar dugu, eztabaidatu, errealitateari egokituz, borroka feministatik sortzen ditugun borroka ideologikorako tresnak zeintzuk izaten jarraitu behar duten. Hori da erronka!

2. EKINTZARAKO ARGAZKI KONPARTITURAKO TOPAKETETAN ATERATAKO LAN TALDEETAKO IDEIA NAGUSIAK.

Topaketetan goizean zehar lan talde desberdinetan landu genituen ideia nagusiak bildu ditugu atal honetan. Emakumeon eskubideei, errealitateei eta bizi erei dagokienean eman diren atzerapausoak- aurrerapausoak, aldaketarako identifikatzen ditugun gako nagusiak eta mugimendu feministaren inguruko pertzepzioak.

1. Egoera aztertzen: atzerapausoak - aurrerapausoak

ATZERAPAUSSOAK

- Krisiaren aitzakiapean emakumeak eremu pribatura buelta.
- Berdintasun faltsua: zapalkuntzak ezkututzen ditu, botere harremanak desitxuratu, patriarkatuaren birfuntzea.
- Eremu publikoan eskubideen aitortza bat eman da baina ez dira hauek bermatzeko behar besteko baliabiderik sortu, diskurtso feminista neutralizatu.
- Eremu pribatuan ez dira aldaketarik eman.
- Harreman ereduak indarkeriaz zeharkatuta: prekarietatea, mikromatxismoak.
- Kontrola eta maitasun erromantikoa indartu egin da.
- Berdintasun formalean aurrerapausoak eman dira.
- Egiturazko aldaketarik ez da eman.
- Marra gorriak markatzeko zailtasunak ditugu.
- Feminismoaren asimilazioa eredu hegemonikoagatik: kontsumo-gai?, diskurtso politikoki zuzena?
- Dikotomiek bereizten gaituzte.
- Eskubideez jabetzen garen heinean sistemak hauek apaltzeko formak eta mekanismoak abiarazi.
- Sistemaren kontrola areagotu, borroka sozialaren kriminalizazioa eta errepresioaren areagotzea

AURRERAPAUSSOAK

- Feminismoaren baloreen transmisioa.
- Feminismoak eraldaketa sozialetara egokitzeko gaitasuna izan du.
- Euskal feminismoa espazioa irabazten ari da, eraldatzen, sortzen.
- Merkatuaren beharretara egokitu gaituztenez, super-emakumeak izateko presioa areagotu da.
- Erasoen aurrean erantzun sendoagoak ematen ditugu.
- Zapalkuntza asko ikusarazi dira.
- Belaunaldiz belaunaldi emakumeak askeagoak gara kontzientziario eta antolakuntzaren feministaren laguntzaz. Eskubideen aitortzak, jabeakuntza pertsonal eta kolektiboak aurrera egin du.
- Sexualitatea eta identitateak modu ezberdinean ulertzen eta bizitzen hasi gara pixkanaka, erresistentziak eta zailtasunak hor badiraute ere.
- Indarkeri anitzak identifikatzeko urratsak eman dira.
- Erreferentzialtasuna lortu du feminismoak: instituzioetan, hedabideetan, etabar.

2. Aldaketarako gakoak (horia)

- Emakumeen ahalduntze, antolakuntza eta saretzea .
- Mugimendu feministaren aitortza politikoa lortu behar dugu, gizartean eragiteko gaitasun politikoa lortu.
- Bizitza bizigarrien inguruko hausnarketa eman behar dugu: harreman ereduak, zaintza, prekarietatea...
- Lurraren zaintza.
- Bizitzak kolektibizatu, erreproduktzio-produktzio arloen banaketa gainditu.
- Botere hartu behar dugu.
- Denboraren eztabaida eman behar da.
- Bizitzaren zaintza erdigunean jarri behar dugu, eztabaida eman: zer esan nahi du honek? Zer bizi eredu sortu

behar ditugu?

- Ezkerraren berregituratzea eta Euskal Herriko eraldaketa-askapen prozesuan feminismoaren oinarria sartu.
- Indarkeri anitzei eta prekarizazioari aurre egiteko feminismoa tresna bezala azaldu.
- Nor da feminismoaren subjektu politikoa? Eztabaidarekin jarraitu. Subjektu honen aldagai ezberdinak zabaldu: klase, jatorri, adin, sexu, aukera sexuala...
- Eremu pertsonalarekin politika egin.
- Balioen iraultza: hezkidetzan oinarritutako balioak, autogestioa, kolektiboa, zaintza...
- Beste herri mugimenduetako taldeengana gerturatzea, aliantzak jorratzea.
- Indar feministen metaketa behar da.
- Feministok estrategia komuna behar dugu, aliantza estrategikoak, autonomiak errespetatuz. Eztabaida kolektiboak botere, zaintza...ren inguruan.
- Diagnostiko feminista batetik lehenetasunak markatu behar ditugu.
- Akademiako eta herri mugimenduetako feminismoen arteko oreka.
- Eraldaketarako tresnak sortu: teoria, jakintzak, konzientziak...
- Proposamen zehatzak egiteko gai izan behar gara.
- Interseksionalitatea, zapalkuntzaren dimentsio ezberdinak kontuan hartu.
- Militantzia eredu propioak landu behar dira (parte hartzea, teoria-praktiken uztartzea...)
- Ditugun komunikazio ereduak berrikusi eta gure komunikazio bideak indartu.
- Zeharlerrotasuna behar da, borroka sozial guztiak feministak bihurtzeko.
- Jendartearen aniztasuna aintzat hartu estrategiak garatzeko.
- Teorizaziotik praktikara eta egunerokotasunera jauzi egin.
- Jendartearen zutabe estrategikoetan proposamen feministak jorratu (hezkuntza, ekonomia...)
- Maskulinitate hegemonikoa deseraiki aurrerapausoak eman ahal izateko.
- Praktika-diskurtso etengabe berrikusi ber-asmatu, asimilazioa ekiditeko.
- Pribatuaren kolektibizazioa, publiko egitea.
- Euskal Herriko gatazkaren irakurketa feminista eraiki.
- Espazio komunitarioetan eta autogestioan sakondu.

3. MF egoera (laranja)

- Feminismoa indartsu dago, eraldatzeko gaitasunarekin. MF indartze prozesu batean aurkitzen da.
- Soilik erantzun partzialak emateko gai.
- MF gehiago sartzeko beharra dago.
- Estrategia falta dabil.
- Instituzioetan gaude baina ez botere guneetan. Instituzionalizazioak Mfren apaltzea ekarri du. Erakundeetan egoteak topeak ditu egungo ereduak aldatu ezean.
- Diskurtsiboki garapen handia izan du, baina praktika eta ekintza falta zaio.
- Anitza, gaztea, heterogeneoa.
- Mfk aitortza, errekonozimendua eta erreferentzialtasuna behar du kanpora begira, deslegitimazio handia bizi du eta, aliantzak.
- Zailtasunak jatorri atzeritarra duten emakumei heltzeko eta beste sektore askotara heltzeko ere.
- Ez oso inklusiboa.
- Gizartea eta Mfren arteko jauzia gaunditzeko beharra dago.
- Eraldaketarako gakoa, ongi bizitzeko gakoaren formularen feminismoa oinarri denaren aitortza.
- Oasi bat basamortu batean: ideologia matxistak, eraldaketarako estrategia faltak...
- Potentzialitate handia du baina batzuetan erabilera interesatu bat egitearen arriskua.

3. TOPAKETA FEMINISTAK, MAHAI-INGURUA. TRANTSIZIO FEMINISTA: INTZIDENTZIA POLITIKOA, ESTRATEGIAK ETA BOTEREA(K) LABURPENA. (Estitxu Eizagirre, Argia)

Ostera ere Kofradia lepo zela (600 lagunuen aurrean), mahai-inguru bizia eta mamitsua osatu zuten Josebe Iturrioz, Saioa Iraola, Ainhoa Etxaide, Jule Goikoetxea, Ana Murcia eta Jeanne Roland (bien artean hitz egin zuten Garaipen taldeko kide moduan), eta Idurre Eskisabelek. Bilgune Feministako kide Miren Arangurennek bikain moderatu eta kudeatu zituen denborak. Proposamen landuak eta umore zirikatzailea uztartu ziren espontaneoki, bor-borka zegoen aretoan. Hainbat esaldi testuinguru horretan hobe kokatu ditzake irakurleak. Hurrengo erronka nagusia boterea hartzea dela azaldu zuten: erabaki politikoetan eragitea, hegemonikoa izatea, kontzeptu nagusiak feminismotik birdefinitzea, eta azken helburu gisa euskal estatu (trans)feminista lortzea. Borondatea eta beharra agertu zuten guztiek Euskal Herriko mugimendu feminista osoa batuko duen gune bat eratzeko.

Hemen duzu laburpena:

Zein dira trantsizio feminismo baterako oinarriak? norantz trantsitatu nahi dugu?

JOSEBE ITURRIOZ

“Iraultza” eta “trantsizioa” hitzak elkarren ondoan jartzen dugunean arazoa sortzen zait, trantsizioak karga negatibo handia du, trantsizioa ezer ez egiteko hitz tranpa izan ohi da, eta helburua iraultza da. Zer da iraultza? Errotik eta era erradikalean planteatzen den aldaketa. Iraultza egiteko bidea behar da, eta trantsizioak esanahi hori izan dezake. Trantsizioak “trans” esanahia badu, interesgarri zait. Iraultza ez da bakarrik aldaketa soziala, diskurtsoa, pentsamendua bera aldatu behar da. Zer da jakintza? Nola partekatu behar dugu? Zer da erlijioa? Zer da politikoa? Politikoak ez diren eremuak politikara eramaten jarraitu behar dugu.

Nola bideratu behar den iraultza? Ez dago bide bakarra. Iraultza bideratzeko eremu ezberdinak daude, eta bakoitzak bere esparruan iraultza egin behar dugu. Garrantzitsua da iraultzaile sentitzea eta bakoitzak bere tresnekin egitea, denok ez ditugu tresna berak.

Medeak taldean oso kritikoak izan gara instituzioekin, eta gai horretan nire ibilbide politikoa kontraesanaz josia ikusten dut: udal teknikaria izan naiz, orain Plazandreoekin plataforma sortzen ari gara hauteskundeetara aurkezteko... baina kontziente izan behar dugu tentsioan daudela boteregunea eta iraultza: kontraesanak sortzen dira, koherentzia totala ezinezkoa da, baina adi ibili behar dugu botereguneak aldatzeko.

SAIOA IRAOLA

Norantz trantsitatu nahi dugu? Bide-orri bat dela irudikatzen dugu, xenda ezberdinez osatua baina norabide bat duena. Bilgune Feministakoontzat burujabetza feminista da iparra. Burujabetzak ez du “soberania” esan nahi, burujabetza bada prozesu indibiduala, gure buruaren jabe izatea, gorputzarena, osasuntsu egoteko bide egitea, elikadura, ekonomikoki burujabe izatea... baina bada kolektiboa, herri prozesuari eta gatazkei ere erantzuten die prozesu honek. Jabe hitzak erantzuten dio intziditzeko gaitasuna izateari. Nola lortu ipar horretara iristea? Proiektu feminista bat behar dugu, bateratze handi bat. Ezinbestekoa da feminismotik abiatzea, Euskal Herriatik abiatzea, zapalkuntza ezberdinen elkar-eraginerantz interseksionalizaziorantz joatea, egoeraren arabera moldatu beharko da, elkarlanean eta aliantzan oinarrituta. Intzidentzia politikorako feministok auto-antolakuntzan oinarritu beharko dugu baina une batzuetan bateratu beharko dugu erakunde publikoetan egiten den lanarekin. Bide paraleloak dira, ikusi beharko da bakoitzaren espazioak zein diren.

AINHOA ETXAIDE

Trantsizioa da egoera batetik bestera joateko egiten dugun bidea. Bagaude jada trantsizio batean, azken 6-7 urtean oso egoera ezberdinera goaz: erreforma kapitalista egin dute eta kapitalismo basatira goaz. Horrek emakumeei ekarriko digun arazoaren dimentsioaz ez gara oraindik jabetzen. Euskal Herriak ukatua izaten jarraitzen du, norabidea erabakitzeko erabakimenik gabe. Egoera honetarako propio estrategia definitu behar

ditugu. Nora joan nahi dugun argi izatea da giltza, ipar-orratzak beharrezkoak dira, premia zaharrak dira baina galdera berrien erantzun berriak bilatu beharko dira. Beraz, kontua ez da galderen erantzunetan ados egongo garenik, baizik eta helmugan. Helburua da diagnostiko sendoa edukitzea (zein da emakumeon argazkia?). Eta diagnostikoaren araberrako estrategiak garatzea, sarri non gauden ahaztu eta lortu nahi dugunaren arabera egiten baitira estrategiak. Atzera goaz eta argazkia pentsatzen duguna baino larriagoa da. Gure bizitzan eragina izango duen pobrezia egoera zabaltzen ari dira. Ez da kasualitatea abortuaren legea, ez da kasualitatea LOMCE, ez da kasualitatea TTIP-a... Estrategia feminista ezberdinek ekarri dutenaren balorazio zintzo bat ere egin behar dugu: Erakundeen bideak zer eman du, feminismo marxistak zer eman du...?

JULE GOIKOETXEA

Trantsizio feminista botere posizioak hartzean datza. Feminismoa estatu edo nazio mailako gaia bihurtu behar dugu. Botereguneetan dauden alderdi politiko, komunikabide eta abar estrategia argirik gabe daude, despistatuta, eta aprobetxatu behar dugu. Beti kontrabotere izango gara, baina botere hegemoniko ere bihurtu behar gara. Estatu feminista, hori da helburua. Kataluniako Trantsizio Nazionalaren helburua bada independentzia, guk ere osatu behar dugu gurea, helburu zehatzak zehaztuz. Zer izango da euskal estatu feminista eta nola lortuko dugu? baina ez 20 urtetan, baizik 5 urtetan? Epeak jarri eta bete behar ditugu. Kolektibo eta sektore izatetik osotasun izatera pasatzea da gakoa. Historia egiten ari garela sinestea. Espropiatua izan zaiguna berreskuratzea, gu gara autoritatea eta erdigunea, orain arte boterea eta autoritatea musutruk ematen ari baikara: gure ezagutza, balioak, praktikak... Helburua litzateke estatu mailako interlokutore bilakatzea feministak. Ongizate estatuan, sindikatuak interlokutore ofizialak dira. Lortu behar dugu feministak izatea interlokutoreak eta lege guztiak feminismotik pasa behar izatea.

ANA MURCIA

Egiturazko aldaketak orain iritsi dira munduaren leku honetara, baina urte asko daramagu munduko beste leku batzuetako feministok horri buruzko eztabaidan eta hori da etorkin feminista askoren egoera. Helburua gizarte transfeminista multikulturala da, eta ez abangoardia bakar bat izatea, homogenea, txuria eta erdi mailako klase sozialena. Bizitza erdigunean jarri behar da. Bizikrazia da aldarrikatzen dugun kontzeptua. Nitik barne zapalkuntzak landuta lortu nahi dugu kolektiboan aldaketak egitea.

IDURRE ESKISABEL

Trantsizio hitzak Espainiako trantsiziora garamatza. Garai loriatsu haietako kantu bat ekarri nahi nuke, euskal trantsizio feministarako kantua: Jose Anton Artzeren hitzak maisuki musikatu zituen Mikel Laboaren “Martxa berrirako lehen notak”, hori da euskal estatu feminista horretarako proposatzen dudana ereserkia, bi kontzeptu hauek azaltzen dituelako: “inor ez inoren menpekorikan, nor bere buruan jabe” eta “batek gose diraueno ez gara gu asetuko”.

Zein dira erresistentzia estrategiak?

AINHOA ETXAIDE

Ez dago estrategia bakarra. Ikuspegi estrategiko ezberdinen metaketa behar du. Estrategia bakarra hautatzekotan aliantza da bidea. Arazoa ez da estrategia ezberdinak izatea baizik kontrajarriak. Ez dugu zertan denok ados egon behar. Estrategietako bat aztertuko dut: bizi-baldintzei begira, baldintza materialak ziurtatzeko estrategia. Ez dut ezagutzen pobrezian itotako subjektu politiko abangoardistarik. Nazkatu naiz entzuteaz “Euskal Herrian oso ongi bizi garela”: mahai honetan sei kide gaude eserita eta oso baldintza ezberdinak ditugu. Ez da egia estrategia berak momentu denerako balio duenik. Duela 6-7 urte kristalezko sabaiaz hitz egiten zen. Orain oinarri oinarritzko eskubideak eta bizi-baldintzak lapurtzen dizkigutela esaten ari gara, kontua da nola berreskuratu antzinako baldintzak, haiek batere onak ez zirela azpimarratuta. Espazio publikoa berreskuratu behar dugu. Baina feminismoak espazio publikoa berreskuratzeaz ari gara, ez emakumeak espazio publikoa berreskuratzeaz. Erakunde bat feminista bihurtzen da feministek espazioak hartzean, ez emakumeek.

SAIOA IRAOLA

Orain arteko erresistentzia estrategiak erabiltzen jarraitu behar dugu eta berriak jorratu. Gauzak aldatzeko gaitasunean sinistuta planteatu behar dira estrategiak. Gure bizitzetan protagonista bilakatzea da gakoa, ahalik hobekien bizitzeko estrategiak garatu behar ditugu, kontzientziazioa, ahalduntzea, jabetzea... herri guztietan lan egitea ezinbestekoa da eta pertsonak lantzea da gakoa, norberarengandik hasten baitira aldaketak. Beharrezkoa da ausnartzea, eztabaidatzea, elkarrengandik ikastea eta formazioan sakontzea. Mugimendu feministak aitortza politikoa izatea beharrezkoa da. Gainerako alderdi eta eragileekin mintzakide izateko gaitasuna lortu behar dugu. Gai ezberdinen inguruan aliantza puntualak lortzen ditugu baina epe luzerako kontsentsu batzuk edo adostasun batzuk biltzea eta indarrak metatzea garrantzitsua da eta aukerak baditugu. Aliantzak behar ditugu baita ere mugimendu sozialekin, jakintza esparru anitzetan dauden feministekin, herri mugimenduekin... aldaketa sozial eta politikoa erdietsi nahi dugun arteko aliantzak ezinbestekoak dira herriaren kontraboterea josten joateko. Euskal Herriko feminista guztiok elkartzeko gune baten beharra eta desioa dago.

JOSEBE ITURRIOZ

Nahiko ados gaude gauza askotan. Estrategiei begira, oso arraroa egiten zait estrategien dekalogoia egitea. Baina ekintzetara pasa behar dugu, nahiz urte asko daramatzagun ekintzetan. Baina kaleratze politikoa eman behar da. Ez dago bide bakarra eta errespetatu behar ditugu bide guztiak. Mugimendu feministan ez dugu denok elkar maite, inkoherentziak ditugu, baina goazen besteren lana errespetatzera, ikustera, eta aliantza interdisciplinarra lortu behar dugu: nonbait gorpuztu behar da, behar du leku bat. Interseksionala da gure aliantza, ezin da txuria izan, heteroa... identifikatu behar ditugu zapalkuntza guztiak.

Feminismoa ez da emakumeentzat bakarrik, proposamen olistikoa da eta ez da apendizet bat. Munduan egon den proposamenik ia interesgarriena da feminismoak egin duena. Alor guztiak ukitzen ditugu, pentsamendu pila bat garatu dugu, praktikak... Feminismoak badu ibilbide bat mikroiraultzak lortzeko. Has gaitzen jada gure bizitza eraldatzen, eta aliantzen bidez iraultza txikiak lotuz eratuko dugu estatua. Zapaltzen gaituzte leku guztietatik, modu globalean eta ados, lokaletik erantzun behar dugu, baina arazoa sorrazten didate estatuen mugek: estatua nahi dugu baina goazen mugaz haraindi estrategia feministak garatzera. Zaintza sozializatzen duen gizartea nahi dugu.

IDURRE ESKISABEL

Aldaketa garai delikatuan gaude. Alde txarrak gehiago dira, izan ere krisi esaten dioten arpilatze hori sekulakoak egiten ari da. Lehenago prekarietatea zena orain eskubide gisa planteatzera garamatza. Aldaketa aukerak ere badaude onerako. Euskal Herrian gauza berriak proposatzen eta egiten hasteko bidea abiatu da. Batetik makinaria izugarria zapaltzen ari zaigu alor guztietan, baina bestetik sentitzen dut aldaketarako gogoia zabaldu duela jendartean eta ausartuko nintzateke esatera euskal feminismoak loraldi bat bizi duela. Baina oso kontuz ibili behar dugu, diskurtsoaren alorrean, ideia mailan kontraeraso moduko bat gertatzen ari delako. Proposamen feminista batzuek lortu dute onarpen eta ikusgarritasun bat, baina loraldi horrekin batera dator "e, neskak, pasatzen ari zarete, neurrian ibili". Diskurtsoetan bi gezurretan nabari dut hori: "pentsamendu feminista hegemonikoa da, egun transgresore izatea da feminismoaren kontra kokatzea" mezu hori asko zabaltzen ari da oso gertuko sentitzen ditugun mutilen artean. Bigarren gezurra da berdintasuna iritsi dela.

Eta ideologia zahar baten loraldiak ere kezkatzen nau, amatasun glorifikatuarenak. Amatasun eredu hori ezker ideologiatik arriskutsua iruditzen zait eta militante belaunaldi bat galtzen ari gara.

Euskalgintza eta feminismoaren arteko elkarlana eskertuko nuke. Zapalkuntza mota oso antzekoa da sentitu dudana emakume naizen aldetik eta euskal hiztun naizen aldetik, oso naturalizatua, eta ahalduntzean egin beharreko bidea oso antzekoa da.

JEANNE ROLAND

Garaipen taldean aktibismotik lan egiten dugu, horrek ez du esan nahi teoriarekin bateragarria ez denik. Ez da kontua erresistentzia bakarrik, eraiki ere egin behar da lortu nahi dugun gizarte feministara iristeko. Estrategietarako puntu hauek proposatzen ditugu:

- Bisioa, ikuspegia izatea epe ertain eta luzera, etengabe testuinguruan kokatuta. Egun ditugun arazoak eta errealitatea ez dira duela 20 urtekoak. Emakume etorkinen egoerak txertatzen ditugu gure irakurketetan?
- Auto-antolakuntza eta autokontzientzia feminista indartzea emakumeengan. Emakume taldeak egon daitezela denean, antolakuntzarik eta kontzientziarik gabe ezin ditugu gainditu zapalkuntzak. Minak landu behar ditugu, emakume izatearen mina, etorkin izatearena, beltz izatearena... kontziente egin behar dugu.
- Mobilizazioa. Kaleak okupatu behar ditugu erakusteko gure ahotsa. Hiltzen gaituzten egoerak salatzen kalean egon behar dugu.
- Aliantzak behar ditugu eta aliantza batzuek estrategikoak izan daitezke. Ez dugu mugatu behar talde feministetara.
- Zaintza taldeak sortu behar ditugu. Emakumeok besteak zaintzeko hezi gaituzte, ordua da gure burua zaintzeko, askatasunerako bidea da.
- Pasio eskolak sortu behar ditugu, hitz egiten dugu ideologiez eta gorputzaz, baina non daude gure emozioak? beldurrak, gorrotoak, ilusioak...

JULE GOIKOETXEA

Ordua da erresistentziatik kontraerasora pasatzeko. Goazen boterea hartzera. Bakoitzak bere estrategiak dauzka eta denak izan daitezke baliagarriak. Feminismoa egun ez da egiten mugimenduetatik, egun feminista asko ditugu hedabideetan eta abar, bakoitzak bere posizioetatik egin ditzala estrategia hauek.

Proposamen zehatz bat egingo dut, Saioa Iraolak iradokitako gune horri tiraka: Gune horri feministen estatu kontseilua deitu diot. Estatu kontseilu horretan bi gune leudeke: gune bat borroka ideologiko eta diskurtsiborako litzateke, diskurtso berriak eratzeko, sozializatzen... diskurtsoak artikulatzen du errealitatea, diskurtsoa aldatzea da bizitza aldatzeko lehen pausoa, ezinbestekoa da. Bigarren gunea faktikoa litzateke, inzidentziarena. Urtero elkartuko litzateke gune hori eta lau-bost helburu markatuko lituzke. Adibidez, bi politika publiko atera nahi dira, eta bi kontzeptu aldatu behar dira: etengabe "gatazkaren konponbidea"z hitz egiten da baina emakumeok ditugun gatazka pila horietaz ez da inoiz hitz egiten. Ez dugu onartuko gatazka deitzea ETA eta estatuaren artekoari eta ez gureei, ez dugu onartuko biolentzia deitzea estatuak egiten duenari eta abar eta ez guk egunero bizi ditugun biolentziei. Goazen adostera zein kontzeptu sozializatuko ditugun urte horretan eta guztiok aldi berean kontzeptu horiek erabiltzen hasi.

Ikusi behar da nolako ordezkari beratu behar den gune faktiko horretan eta abar. Ez dute bakarrik egon behar talde feministen ordezkariak, baita ere sektore bakoitzean dauden feministak ere. Orain masa kritikoa handia dugu, asko gara. Koordinatzen bagara asko egin dezakegu, ze herri hau oso txikia da!

Zeintzuk dira borroka feministaren erronkak?

IDURRE ESKISABEL

Urte dezente pasa ditut euskal izendegia aztertzen. Jada ez gara Rosamari, Tomas, gara normalean Agurtzane, Iraitz... izenetan behintzat iraultza lortu da, euskaldunok sortutako izen corpus bat dugu. Gizon izenak eta emakume izenak sortu ditugu eta Euskaltzaindiak erabaki du ez direla trukagarriak, binarismoa aplikatu behar dela. Baina gure praktikak ere horretara jo du, sortu ditugu emakume izen batzuk eta gizonenak. Korpus horretan neskak izaten dira Estitxu eta mutilak Ekaitz, hor definitzen dugu zer izan daitezkeen batzuek eta besteak. Zer den gizontasun egokia eta zer emakumetasun egokia.

Sexuen zapalkuntzan eta nazio zapalkuntzetan ere berdin gertatzen da, guk egin ditugu gure definizioak baina jaso ditugu kanpotik egindako definizioak. Kanpotik esan zaigu zer diren euskal emakumeak eta hori erabili da zibilizazioa definitzeko. Pier de Lancrek sorginak ginela zioen eta Alfonso Ussiak itsusiak garela dio. Ez dute

egiten emakumeak kaltetzeko, baizik gure bidez zentralak diren gizonak erasotzeko. Horren aurreko gure erreakzioa izan da are emakume birtuosoagoak sortzea gure iruditerian: Emakume garbi, indartsu, langile eta zaintzaile primerakoa. Gure imaginarioa hor eraiki da. Denbora pasa da eta euskal abertzaletasunak jarraitu du gure irudikapenak egiten eta ez du iruditeria gehiegi aldatu. Ezker abertzalean ere berdin eman da. Emakume oso femenino eta kokina, pertxentaren imaginarioa izan da nagusi. Eta oso lotua sexualitatearen murrizketarekin eta gaitzespenarekin. Alde on bat izan dugu, emakume indartsua bada kontraegemonikoa. Emakume indartsuaren iruditeria horretan gizonak beste aldera egitea oso positiboa iruditzen zait, esaterako Kukai dantza taldearen azken emanaldian gizonak gonarekin ikustea dantzan. Beste ekarpen bat emakume borrokalaria izan da, azken urteetan armetan egon dena, eta hori ere transgresorea izan da.

JEANNE ROLAND

Emakumeen errealitateaz elikatu behar gara eta bazterretako kolektibo guztietatik ere bai. Kolektibo hauek erresistentzia eta errebeldia garatzen ari dira eta horiek ezagutu behar ditugu. Hipotekak kaltetutako elkarteak, esaterako. Guk ere landu behar ditugu beste kolektibo marginatuekiko ditugun aurriritziak, guztiok ditugu eta. Beharrezkoa da binarismo sexuala gainditzea, horrek zapaltzen gaituelako.

Ordezkaritza politikoak jarraitzen du erronka izaten. Masa kritikoa behar dugu gure proposamenak aurrera eramateko. Nola lortu politikoek agenda politikoa talde feministekin partekatuta eraikitzea?

Nazioarteko harremanak boterean eraikitzen dira eta dominazioan. Horiek kontziente egin eta mahai gainean jarri behar dira. Gu gatoz herrialde batera, zeinak urteak pasa dituen gure herrialdeak zapaltzen, eta bertako emakumeak baliatu izan dira zeharka zapalkuntza horren onurez. Nola landu diskurtso politikoa, emakume eta etorkin gisa kokatzeko, arrazismoa indarrean dagoenean? Nola agertu gezurra dela kanpoko emakumeak bertako emakumeentzat mehatxu garena, euskararentzat, lan aukerentzat... Gu euskaltzaleak eta abertzaleak gara!

JULE GOIKOETXEA

Demokratizazio kontzeptua landuko dut. Herria gobernatzera sartzen den prozesua da demokratizazioa. Nola txertatu gure estatuaren eraikuntzan ikuspegi feminista?

Feminismoak berdintasuna bilatzen du. Eta berdintasun hori estatuaren ahalmenaren bidez inposatzen da. Adibidez, berdintasun sozioekonomikoa. Horregatik ematen diet garrantzia estatu egiturei. Boterea nahi dugu, zerbait egiteko. Egun baliabide gehien ematen dizkiguna estatua da, horregatik ez dut hitz egiten gizarte feministaz, komunitate feministaz... estatu feministaz hitz egiten dut.

Zer da feministentzat demokrazia? edo zer ez da? demokraziaren esanahi patriarkalak ez ditugu onartuko. Ulertzeko era bat jorratu behar dugu. Guk sozializatu behar dugu zer den demokrazia, bestela esaten ari zaizkigu zer den demokrazia eta guri esanahi horrek ez digu balio. Autoritatea lortu behar dugu, hau da, guk esaten badugu hau dela demokrazia, bada hau da demokrazia. Guk berdefinitu behar ditugu kontzeptuak, egia eraiki behar dugu. Egun demokrazia ongizatea esan nahi du, hemendik bost urtera demokrazioak feminismoa esanahi behar du, baina hori egin daiteke eta egin behar da.

Errealitatea sortzen duen ahalmen politikoa da boterea, noski behar dugula boterea hartu. Kontraboteretik hori egin daiteke baina bakarrik erdia, boteretik egiten da beste erdia. Ezin gara geratu mobilizazio eta kontraboterearekin bakarrik, demokraziarik ez dago ez badaude ahalmen handia duten egitura sendoak. Estatuagintza feministak esan nahi du estatuaren ideia feminismotik pentsatzea. Zergatik feminismotik? Feminismoa da ideologia bakarra proposamen integratzaileak egiten ari dena. Feminismoa ez da sektore batentzako, feminismoa da herri osoa eraikitzeko beste era batera. Zer izango da enplegua? zer esan nahi du produzitzeak? nola antolatuko dugu prestigioa? nola jasoko dira zergak? hiltzaileekin zer egingo da? bankariekin? seme-alabak pribatuak izango dira edo ez? zer da osasuna? zer da lehendakari izatea? zer da ama izatea? galdera hauek feminismotik erantzutea eta praktikatzeta da estatua feminismotik eraikitzea.

SAIOA IRAOLA

Bilguneak hiru erronka nagusi planteatzen ditugu:

– Bide-orriaren inguruko eztabaida soziala sustatzea. Guztiok ongi bizitzea dugu helburu, pertsonak erdian jartzea da jendarte eredu ideala. Hasi behar gara hori guztia ezaugarritzen. Zer da pertsona zentroan jartzea? horrek nola eragiten du alor bakoitzean?

– Krisi iraunkorra bizitzen ari gara. Krisi guztiak garamatzate prekarietatean sakontzera. Bizitza duinen aldeko dinamikarekin eta jardunekin jarraitu behar dugu. Urgentziatzko prekarietate egoerari aurre egin behar diogu. Baina horrek aukera eman behar digu definitzen joateko egoera honetatik guk desio dugun jendarte eredura joateko. Etxeko lanen errekonozimenduaz ari garenean ekonomikoaz ere ari gara? eztabaidagai dugu. Zer esan nahi du bizi tempusa geuk definitzeak? Gorputzetan ongi eta osasuntsu sentitzeko sare eta erramintak garatzen joan behar dugu.

– Lidergo feminista baten beharra ezinbestekoa da. Gunea behar dugu eztabaida hauetarako, une-gunea. Aukera dugu eztabaida hauek garatzeko. Beharra ikusten bada pentsatu behar da nola antolatu partehartzea... Mus partida hau handira jokatzeko garaia da.

AINHOA ETXAIDE

Ni zuzenean Euskal Herriko Jardunaldi Feministak eskatzera etorri naiz.

Erronka da gaur jendetza honen artean sentitzen den energia hau ez ote den izango hustuko den puxika. Hau dena haizea izan ez dadin mugimendu feminista da gakoa. Euskal Herriak mugimendu feminista behar du une honetan mahai gainean ditugun erronkei aurre egiteko. Subjektu politikoak izan behar gara eta erabakigarriak. Gauzak erabakitzen ari dira eta ez ditugu guk erabakitzen. Nork eta non erabakitzen den, horrek markatzen ditu erabakiak. Mugimendu feminista indartsua behar dugu. Kezkaz entzuten dut mugimendu indartsua dugula esaten denean. Izan gaitezen zintzoak: zenbat erabaki politikotan eskatu zaio erabakia mugimendu feministari? indarra hori da. Indarra da zure baldintzatzeko gaitasuna. Indarra ez digute emango, indarra kendu egin behar diegu. Sektore publiko guztia berrantolatzen ari da Eusko Jaurlaritza eta horrek goitik behera eragingo digu. Zaintza eta hezkuntza gudan erortzen ari da eta feministok ez dugu erabakirik hartu gai horietan. Zein da gure erabakia Kutxabanken pribatizazioaren aurrean?

Estatua eta mugak aipatu ditu Josebek lehenago. Herri honek elkartasun politikak ez egiteko une honetan dugun muga nagusia estaturik eza da. TTIPa zer da? Transnasionalek erabakiko dute zer jango dugun, nola produzituko den, nola biziko garen... Inoiz baino errekurtsu gutxiago ditugunean kontsumoa da partehartzerako integrazio modua. Hori emakumeontzat kaltea da. Ez da egia mikroan egiten denak eragin mikroa duenik. BBVak beheko solairua saldu nahi dio saltoki handi bati eta saltoki horrek jartzen duen baldintza da igandeetan zabaltzea. Hemen da leku bakarra Corte Inglesek igandetan isten duena. El Correion ikusi dituzue igandeetako gehigarriak? orain sekulako arazoa omen dira igandeak. Zer egin horren aurrean? Jaiak jai! herriz herri dendariok eta herritarrok beti borrokatu duguna borrokatzen jarraitu.

JOSEBE ITURRIOZ

Gure eremutik ikusita, erronka nagusia dago nola eraman gure esperientzia erakundeetara. Erakundeak eraldatu egin behar ditugu, nik ez dut orain dagoen estatu bat nahi, birdefinitu behar dugu. Ez dut muga bat nahi jendea Melillako harresietan ibiltzeko. Bai nahi dut muga bat Luis de Guindosek zerbait esatean erantzuteko “zu hemendik ezin zara pasa”.

Iraultza da helburua. Irakurketa transfeminista egin eta proposamen olistiko bat egin behar dugu: hau da herri honentzako gure proposamena, feminista. Fuerte gaude? Bai, eta gainera beti diskurtso hori zabaldu behar dugu, “kontuz, kontuz, asko gara eta bagatoz”... beti esan digute frakasoa garela eta ez da egia, baina ez digute esango ongi egin dugunik. Egin behar duguna da duindu. Gure bizi baldintzak hobetzen hasi behar gara, estrategikoki jokatzeko.

Beste erronka nagusia da bestelako gizarte hori lantzea: zer da gamilia? zer lana? zer heteroaraua? berdefinitu ditzagun gauza horiek guztiak.

Sortu dezagun gune bat. Une honetan kandidatura politiko bat sortzen ari gara, Tania Sanchezen mutil lagunak egin duen bezala, Ada Colauk egin duen bezala... publikoan eserita aurpegi ezagun asko ikusten zaituztet alderdi politikoetan ari zaretenak, eta oso majoak izanik ere zuen alderdietako gizonak noraino hartu dituzte kontuan zuen proposamen feministak? ez eman doainik gure diskurtsoak gero eurek gu zapaltzen jarraitu dezaten. Norberaren bideekiko errespeto osoarekin, baina hobe da zuen alderdian (hitza gordin esango dut) “zorraputa” bat izatea baina mesedez, gurekin aliatu, gurekin estrategia egin. Esan dugu erabakitzerakoan feministoi ez zaigula alderdi politikoetatik deitzen, eta mesedez, deitu gaitzazue zuek!

Asmatu ditzagun beste termino batzuk. “Estatu feminista”z hitz egiten hasi orduko feminismoa erori zaigu, estatuan zentratu gara. Goazen “transfeminismoa” erabiltzera.

ONDORIOAK

JOSEBE ITURRIOZ

Boterea gauzak egiteko ahalmena besterik ez da. Emakumeok boterea behar dugu. Enpoderamentua. Boterea behar dugu gune guztietan. Boterearen oinarrian desoreka bat sortzea egon da beti. Kontraesan asko sortzen dizkigu estatuaz hitz egiteak, tradizioz konnotazio asko dakartzalako eta zaila delako hori dena eraldatzea. Erakundeen helburua zigortzea, kontrolatzea izan da. Gai izan behar gara gure gizartea beste era batera bideratzeko eta horretarako boterea behar dugu. Nahiz eta jakin ezingo ditugula alboratu botereak sortzen dituen arazo denak. Esaten ari gara gobernu hartu nahi dugula. Botereak sortu dituen kontrolerako eta zigortzeko erakundeak birplanteatu behar ditugu. Horretarako aukera eta boterea izan behar dugu eremu guztietan. Sortu ditzagun gure harreman ekonomiko alternatiboak, gure osasun eredua. Gune hori sortzeko lehen urratsa Euskal Herriko topaketa feministak dira. Nortzuk garen estatu hori sortuko dugunak? ez diot galdera horri erantzungo. Nahiago dut izan beharrea izaten joan.

SAIOA IRAOLA

Trantsizio feminista ez da lortuko tentsio gabe, inguruan gatazkak eta eztabaidak piztu gabe. Bide hau inori itxaron gabe feministok egin behar dugu. Inork ez digu oparituko.

AINHOA ETXAIDE

Zer garen? LABeko idazkari nagusia, nahiko lan badut sindikatu horrekin, nik ez dut estatu feminista egingo. Lehen Asanblada Feministak (ezker abertzalekoak) Oreretan egin genituen. Batzar horretan egon ginen emakume batzuek badaude hemen, baina gaurkoaren ezaugarria gazteak dira. Gazteak etorri behar dira, baina belaunaldi zaharragoak joan egiten zaizkigu eta belaunaldien arteko aliantzak behar ditugu. Ezin ditugu eztabaida guztiak behin eta berriz errepikatu. Aurrera egin behar da, ez zirkular.

Aliantzak, ez dezagun estrategia bat eta bakarra bilatu. Eta zorionak, aurreko Topaketetan armairutik berdintasun teknikari pila atera zineten (denek “ni ere teknikaria naiz” esaten zenuten) eta gaur armairutik estatalistak ateratzen ari zaretelako. Baina baldintza batekin: estatua bai, feminista bada.

JULE GOIKOETXEA

Estatuaz hitz egiten da bera balitz moduan biolentzia eragiten duen erakunde bakarra. Familia da biolentzia eragiten duen erakunde nagusia. Zer da estatu feminista? eta zer da demokrazia feminista? ez dago demokraziarik estaturik gabe. Zer den? politika publiko feminista egiten duena, lege feministak egiten dituen... beti egon beharko da mugimendu edo kontrabotere feminista. Beti behar dira bi arloak. Mugimenduak egiten dituen eskaerak estatuak bere egin eta martxan jarri behar ditu. Baina erakundetzen den guztia usteltzen joaten da, horregatik behar da beti mugimendua, kontraboterea. Hau gakoa da. Beharrezkoak dira bi ardatzak, orain arte beti egon gara demokratizatzen sistemak baina kontraboteretik eta oso motel goaz, kontrabotereak beti baliabide gutxiago dituelako, horregatik da kontraboterea.

ANA MURCIA

Agian beldurra izango diot estatuari? nik behintzat duda dut estatuak existitu behar duenik. Ezadostasunerako eskubidea aldarrikatzen dut. Nik lehentasuna beste eremu batzuetan ikusten badut horri helduko diot. Nola egin emakumeak subjektu eraldatzaile bihurtzeko? Esanahi berria eman behar diogu “emakume”ari, subjektu politikoa definitzen ari garelako, eta subjektu politiko anitza landu behar dugu, gizon-emakume binarismoa hautsiz.

Krisi ekonomiko honek emakume asko uzten ditu txirotasun egoera larrian eta ekonomia solidario estrategiak garatzen ari gara bertatik ateratzeko.

Proposamen bat feminismo abertzalearentzat: Emakume zaintzaileen bataila lideratzen berak egon behar luke, gure taldea txikia eta berria da.

IDURRE ESKISABEL

Ados naiz Etxaiderekin, errekonozimendua zor zaie lehenagokoei. Hitz berritan eztabaida asko zaharrak dira. Ados nago mugimendua saretu eta gorpuztearen garrantziaz. Kontuan hartu beharko genituzke jendarteko aldaketak, militantzia moduak, saretze moduak. Konpromisoa hartzea egun ez da berdin ulertzen duela 30 urte bezala. Ez dut arazorik agertzeko abertzalea naizela eta abertzale izateak eraman nauela feminista izatera. Abertzaletasunak ez du zerikusirik nazionalismoarekin. Abertzaletasuna da aukera berri bat mahai gainean jartzea. Lorea Agirreri galdetu zioten gazte batentzat zer abantaila duen euskaldun izateak. 80-ko hamarkadan Xabier Montoiak esaten zuen punkia izatekotan euskaldun izan behar zela. Nik uste egun eraldatzailea izatekotan euskaldun izan behar dela. Horrek garamatza imaginarioa nola landu aztertzeraz: Amaiur berri bat behar dugu. Ahaztu epika militarra, ezpatadun gizonez marraztua, eta osatu emakume langile etorkinekin osatutako Amaiur bat.



Jostorratzak dantzan ditugu, Euskal Herriaren burujabetza feministarantz!
Emakume Abertzaleon VI. Topaketa Feministak

4. BILGUNE FEMINISTA HITZARTZEA

1. Zein dira trantsizio feminista baterako oinarriak? Norantz trantsitatu nahi dugu?

Globalizazioak, kapitalaren mugikortasun askeak, politika ekonomiko neoliberalak, krisi ekonomiko sozialak artean, azken hamarkadetan herritarron egoera sozio-ekonomikoa guztiz baldintzatu dute. Eraldaketa prozesu esanguratsu batean murgildurik gaude, modernitateko instituzio zaharren zein harreman sozialen —eta horiek sortzen duten imaginario kolektiboaren— aldaketen aurrean. Pobreen eta aberatsen arteko amildegia areagotzen ari da eta irabazleen eta galtzaileen arteko lehia bizi-bizirik dago. Lehia horretan emakumeok ez gaude irabazleen bandoan. Honez gain, sistema patriarkalaren berregokitzapen horretan, herritarron bizitzak baldintzatzen dituzten erabakiak gero eta urrunago hartzen dituzte, boteredun ekonomikoen interesen mesedera daude erabaki asko eta asko eta borroka sozialen kriminalizazioa eta militarizazioa handituz lortu dute inposaketa horiekin guztiekin aurrera jarraitzea. Aldi berean, sektore eskuindar hauek indartzen eta elikatzen dira: kontserbadorismoan igoyeraren, fundamentalismo erlijiosoen erasoan, emakumeon kontrako mota guztietako erasoan, gure gorputzen merkantilizazioa eta kontrolaren, eta emakumeok eskubideetan irabazitako lorpenen ahultzearen bitartez indartzen dira.

Hortaz, bizi ereduaren aldaketa sakonen aurrean gaude eta sistema patriarkal kapitalistak bortxaz ekarri gaitu gaur bizi dugun aldaketa honen tenorera. Baina, arauak puskatu eta sortzeko, eraikitzeko, asmatzeko, beldurrari aurre egiteko, komunikatzeko dugun gaitasunetan sinesteko eta feminismoaren sokari indartsu eutsi eta tiratzeko garaia da, ahalmena badugu eta baita aukera ere. Aldaketa norabidetu behar dugu, trantsizio feministaren bideak urratsak emateko tenorean gaude. Orain, gakoa da estrategia feministak kontuan izan behar duela norantz norabidetu nahi duen bizi dugun aldaketa hau, erdigunean bizitzak eta pertsonak izango dituen jendarte antolaketa baterantz urratsak emateko.

BURUJABETZA FEMINISTA dugu iparra. Norabidetze honek oinarri izan behar ditu: burujabetza indibidual eta kolektiboa, eta feminismoa. Egoera hau irauli ahal izateko, Euskal Herria feminista baterantz, burujabetza feminista dugu iparra. Bide horretan, trantsizio feminista ezaugarritzen joan behar dugula uste dugu euskal herritarrok eremu ideologiko, politiko eta ekonomikoan bizi ditugun zapalkuntza guztiei “topeak” jarri eta herritar guztiontzako bizitza duinak bermatzeko.

Nola ezaugarritzen dugu BURUJABETZA FEMINISTA:

- BURU: prozesu indibidual eta kolektibo batez ari gara. Indibiduala: gure buruaren jabe, gorputzaren jabe izatea, osasuntsu egoteko bideak jorratzeko aukera izatea, elikadura burujabetza, ekonomikoki burujabeak izatea, orokortasunetik aldenduta, ... Eta kolektiboa: komunitatearen sorrerari, herritarron parte hartzeari, herri prozesuei, gatazken konponbideei egiten dio erreferentzia.
- JABE: erabakitzeko eskubidea, ahalmen politikoa izatea, boterearen jabe izateari dagokio, baina baita, ahalduzterari (aldaketarako dugun gaitasunari) ere.

Beraz, burujabetza prozesuak, bide eman behar digu gorputzen jabetzatik –gure buruaren jabe izateatik–, kolektiboki, komunitate, nazio eta herri gisa burujabe izatera pasatzeko, era paralelo batean egin beharreko bidea dela ulertuta. Ez dagoelako burujabetzaren subjektu soil eta bakar bat, botere politikoa eta euskal estatuaren sortze prozesuari baino loturik ez dagoena. Aitzitik, horrek bidelagun izan behar ditu beste hainbat prozesu sozial, politiko, kultural eta ekonomiko, euskal jendarte osatzen dugun herritar oro burujabe izan eta askotariko zapalkuntza sistemetatik osatuta-sendatuta egoteko, aske izateko, burujabe izateko. Euskal herritarron eskubideak, nahiak eta desioak kontuan hartuko dituen prozesu bat izango dela.

Horrela, burujabetza feminista, ez dugu egoera ideal, estatiko eta mugiezin baten gisara irudikatzen, prozesu dinamiko eta momenturo aldakorra izango den ipar moduan baizik. Borrokatzeko, alternatibak eraikitzeko eta aldarrikapen berriak identifikatzeko prozesu bat da. Nahi bat, desio dugun helburua lortzeko bidea. Etorkizuneko Euskal Herria feminista eraikitzeko norabidea, eztabaida sozial anitzen ondorioz zehazten joango gara. Honez gain, demokratizazio prozesu bat izan behar du, demokrazia muturreraino eramanez, justizia soziala eta parekidetasuna helburu izango dituen. Halaber, feminismoa oinarri izango duen gisara,

jakitun gara, beste jakintza arlo eta ikuspegien arteko uztarketatik eraikiko dugula etorkizuneko herri eredu berria.

Norabide horretan lanean jartzeko ordea, trantsizio feminista horren nolakotasuna definitu behar dugu. PROIEKTU FEMINISTA BAT BEHAR DUGU, sistema kapitalista heteropatriarkalari irtenbidea emango diona, eremu sozio-ekonomikoan zein politikoan. Jarduera feministan identifikatzen ditugun beharrak, aldaketa sozial bilakatuko dituen proiektu oso baten barnean kokatuko dituena.

Historian zehar eman den eta gure kultura eta egitura desberdinetan sustraitua dagoen sexu bereizkeriari aurre egiteko beharrezkoa da aldi berean: batzuetan, arazo larri batzuei urgentziazko neurriak ipintzea; beste batzuen aurrean prebentzioa lantzea, eta baita, pertsonen arteko harreman bidezkoetan oinarritutako antolaketa sozial berria eratzea ere. eskatzen ditu aldi berean. Baina era berean, kapitala eta merkatuak erdigunean dauden honetan, pertsonen eta inguruaren bizitza erdigunean jartzeko ereduaren inguruko eztabaida sustatzea eskatzen digu.

Horretarako, eta jakinda hau ez dela ez egun batetik bestera sortuko, ezta tentsiorik gabe gauzatuko ere, trantsizio feminista baten beharra aldarrikatzen dugu. Atzera ezina bihurtuko den urratsa izan behar du. Euskal Herriko botere eta instituzio desberdinek zein aldaketa soziala helburu duten eragileek, bere gain hartu beharko luketen apustua izan behar du. Mintzakide politiko izateko ahalmena izan behar dugu, eragiteko gaitasuna. Eta hau noski, lidergo feminista irmo batekin lagunduta egon behar du.

EUSKAL HERRIAREN TRANTSIZIO FEMINISTARAKO OINARRIAK:

- Feminismotik abiatuko dena: Sistema heteropatriarkala eta kapitalista den baieztapenetik abiatutako proposamena izango da eta berauek ezarritako binomioak (sexu-genero, publiko-pribatu...) gainditzera zuzenduta egongo den proposamena izan behar du. Teoria eta jarduera feministek urteetan jendarteari egin dizkioten ekarpenak aitortu eta erdigunean historikoki ukatuak-ikusezinak izan diren eremuak erdigunean kokatu nahi ditu. Pertsonala politikoa dela, gaur egun oraindik aldarrikapen bat delako. Era berean, bere diseinua, garapena eta ebaluazioa, metodologia eta teoria feministek egin duten ekarpenetik abiatuko da.

- Euskal Herria abiapuntutzat hartuko duen proposamena izan behar du: Euskal Herri osoan arlo eta eremu zehatzetan gauzatuko den proposamena izan nahi du, tokian tokiko ezaugarrien arabera irakurketa egin beharko du. Euskal Herrian martxan den prozesu nazionalari ekarpen feminista egingo dion proposamena da hau. Eta azterketa zehatz horiek Euskal Herri osoan benetako aldaketa gerta dadin artikulatzeko beharra aurrekusi beharko du proposamen feminista honek. Euskal herritarrak, Euskal Herrian bizi eta lan egiten duten pertsona orori zuzendua egon behar du, bakoitzaren berezitasuna oinarri, guztiontzako aukera berdina eskaintzen dituena. Era berean, gure lurraldean dagoen ondare kultural, linguistikoa eta naturalaz gozatzeko eta mantentzeko dugun arduratik abiatutako proposamena izan behar du. Eta nazio gatazkari irtenbidea emango dion proposamena izan behar du.

- Intersekzionalitateetik abiatuta: Proposamenak, gaur egun existitzen diren zapalkuntza anitzak gainditzeko bideratuta egon behar du, Euskal feminismoak eman digun zapalkuntza hirukoitzaren (sexu-genero, klase eta kultura zapalkuntzak) ikuspegiaren aitortzatik, zapalkuntza anitzen elkarreraginaren, intersekzionalitatearen norabidean. Zapalkuntzak artikulatu egiten baitira, ez dutelako bakoitza bere kabuz funtzionatzen. Ikuspegi honek, subjektu berriak eta zapalkuntza egoera berriak identifikatzeko ezinbesteko tresna dela uste dugulako. Zapalkuntzak hierarkizatu gabe eta hauen artikulazioak posizio sozial anitzak sortzen dituztela jakitun, egiturazko aldaketa bat bultzatuko duen proposamena izango da.

- Irekia eta dinamikoa: Nahiz eta proposamenak zehaztasuna behar duen, jendarte, erakunde eta eragileen arteko eztabaida sozialari lotua egon behar du; egunerokotasunean sektorez sektore, pausoz pauso lantzen joango garena. Egoera berriak identifikatu eta estrategia eta erantzun berriak ahalbideratuko dituen proposamena izateko, itxia eta estatikoa baino, irekia eta dinamikoa, aldatzen eta mugitzen joango dena izan behar du.

- Adostua eta elkarlanean oinarritua: Proposamen honek, akordio sozial eta politikoetan izan behar du

abiapuntua, artean, jada baditugu Emakumeen Eskubideen Karta, Karta Soziala, hala nola. Horregatik ezinbestekoa izango da eztabaida sozialetik abiatu eta akordio, bateratze hauek erdiesteko kontsentsua bilatzea. Era berean, feminismotik arazoaren ertz batzuei konponbidea eman diezaioketula jakinda, beste mugimendu, elkarte eta ikuspegiekin elkarlanean eta aliantzan eraikiko den proposamena izan behar du.

- Erakunde publikoetan zein herritarren auto-antolakuntza eta kudeaketan eragiteko bideratuta: Ez ditugu bi bide bateraezinak ikusten, horregatik, politika publikoetan eta eremu sozialean eragiteko bideratuta egon behar du proposamena. Zenbait arazo modu autogestionatu batean lantzeak ez du esan nahi arazo guztiak modu horretan konponduko ditugunik, edo alderantziz. Bi bideak jorratu behar ditu, bi bideak uztartu eta osagarri egiteko helburuarekin.

2. Zein erronka ditu borroka feministak? Zeintzuk zuek ordezkatzeko duzuen eremuan?

TRANTSIZIO FEMINISTAREN ERRONKAK:

Guk, trantsizio feministarako baldintzak ikusten ditugu, jakitun gara hortaz, gero eta feminista gehiago gaude txoko eta eremu desberdinetan, baita botere guneetan ere, aldaketarako dugun ahalmenean sakonduz, kontsentsutik abiatuko diren proposamenak mahai gaineratu behar ditugu.

Gure ustez 3 erronka nagusi ditugu Trantsizio feministaren baitan:

1. Euskal Herriaren burujabetza feminista zer den definitzeko eztabaida soziala sustatu.

Euskal Herriaren eredu feminista baterantz trantsitatzeko adostasunak aurkitu, zer nahi dugun erabaki behar dugu, honela, eztabaida soziala sustatzea konstante bat izan behar du, bidea definitzen, marrazten joan gaitzen. Gauzak zehazteko premia sentitzen dugu, adibidez, modu demokratiko batean, bizitzak erdigunean jartzeak, herritar guztion bizitzak eta bizi garen inguruarenak, zer esan nahi duen adostu behar dugu. Ondo bizitzea eta bizitza duinak zer diren eta hauek modu kolektiboan eraikitzeak hartu beharreko ardurak zein diren definitzea ere eskatzen digu. Horretarako, eztabaida sozial zabal baten beharra ikusten dugu, formazioa eskainiko duena, hausnarketa kolektibo bat eman ahal izateko.

Bizitza sozialeko eremu guztietan alternatibak eta eragin politikorako proposamenak garatzen joango dena, gaurtik hasita bultzatuko dituen aldaketa horiek, etorkizuneko eredu berri baterako gakoak bilakatu daitezten. Bide honetan bide orri batzuk baditugu: Emakume eskubideen karta, Eskubide Sozialen Karta...

2. Ondo bizitzea eta bizitza duina. Gaurtik hasita, bizi baldintza duinen alde! Bizi baldintzen hobekuntzan erresistentzia mekanismoak, alternatibak eraikitzea. Ekonomia solidarioa, ekonomia feministaren ekarpenak, proposamen anitzak hor ditugu: aurrekontuen, politika fiskalaren inguruan, etxeko demokratizazioan inguruan...

Gaurtik hasita, bizi baldintza duinen alde Oinarrizko beharrak asetzeari; Pobrezia eta urgentziatzeko prekarietate egoerak identifikatu eta horiek hobetzeko ekintzak proposatu, eskubide sozialen defentsa txertatzea. Ondo bizitzeari eta bizitza duinari kontzeptualizazioan sakontzean urratsak ematea: -

- Zaintza eta etxeko lanen onarpen soziala eta hauen banaketa: sexuen arabera lan banaketa gainditzea. Etxeetako lanak eta denborak banatu eta egun etxeetan sostengatzen diren hainbat zaintza lan ardurak kolektibora igaro.

- Denboraren banaketa justu eta parekoa. Gure behar eta nahiak asetzeko aukera emango diguten tempusak sortzea.

- Gorputzen gaineko kontrola helburu duten politika eta neurrien kontra eragin. Ere berean, gorputz aske, anitz eta aldakorak bilakatzeko bitartekoak sortu.

- Gaur egungo familia, lagunarte eredu eta sexuen artekoak zein sexu identitate hegemonikoek sorrarazten dituzten kalteak azaleratu; eta bultzatzen dituzten bizitzeko eredu helburu eta baloreak agerian utzi behar ditugu. Sexu, genero eta sexualitate binomioak hautsi eta identitate kolektibo eta indibidual berriak sortu eta ber-asmatu behar ditugu.

- Heteroaraua eta familia nuklearra zalantzan jarri eta elkarbizitza eta harreman eredu berriak ikusarazi behar ditugu, guzti hauek dinamikoak direla jakitun.
- Indarkeria sexista patriarkatuak erabiltzen duen tresna nagusia da. Honi aurre egiteko bitarteko berriak eskaini, erakunde publikoetan proposamenak egin eta koordinatu eta autodefentsa feminista bultzatu.

3. Burujabetza feminista erdiesteko lidergo feminista osatu

Hau aurrera eramateko, ezinbestekoa da feministok antolatu eta mintzakide politiko erreal eta indartsu bat izatea politikoki intziditzeko. Emakume gisa subjektu politiko eta gure bizitzen aldaketarako protagonistak bilakatzeko bidea jorratuz, aliantzetan eta elkarlana oinarri izanik, MFaren aitortza bermatzeko proposamenetan sakonduz. Eta azken honetan, erronka badugula pentsatzen dugu, benetan aldaketak eragiteko, trantsizio feminista marrazten joateko marko-gune-une indartsu baten beharra azpimarratu nahiko genuke.

3. Hau lortzeko zein erresistentzia estrategia ikusten dituzue beharrekoak?

Emakumeak subjektu politiko eta gure bizitzen aldaketarako protagonistak bilakatzea. Herrietan eta eremu ezberdinetan emakumeen auto-antolakuntza bultzatzen jarraitzea, jabetze eta ahalduntze prozesuak sustatzea, duintasunez bizitzeko erresistentzia mekanismoak (Autodefentsa feminista, zaintza sareak adibidez), oinarri sendoa izango duen mugimendua sortzen jarraitzea. Ahalduntze prozesu hauek norabide desberdinetan ulertuta: informazioa, formazioa, hausnarketa, elkar entzunez, ikasiz, biziz...

Mugimendu feministaren aitortza politiko eta mintzaide politiko gisa onartua izatea. Mugimendu feminista izan da eta da herri honetako emakumeen interesak defendatu dituen eragile nagusia eta zentzu horretan, erakunde publiko zein alderdi eta sindikatuentzako, zein gainontzeko mugimendu sozialentzako mintzaide politiko izan behar du. Era berean, garrantzitsua ikusten dugu, talde feminista anitzen arteko elkarlana eta aliantza puntual zein estrategikoak lantzen jarraitzea. Egun, MFarekin aliantza puntualak baditugu, baina intziditzeko behar ditugu epe luzerako kontsentsuak.

Herri mugimendu, mugimendu sozial eta jakintza esparru anitzekin elkarlana sustatzea. Euskal Herrian burujabetza lortzeko nahitaezkoak dira beste borroka batzuen ikuspegiak eta eremu ezberdinetan lanean gauden arteko aliantza eta elkarlana. Jadanik badaude hainbat espazio, (Eskubide sozialen karta) herri eredu berri batean sakondu eta intzidentzia politikorako bideak zabaldu dituztenak. Horietan parte aktiboa izatea eta sortu daitezkeen berrietan parte hartzea herriaren kontra boterea sortzeko ezinbestekoa dela uste dugu.

Jardun feminista. Lan estiloa. Sarea, esperimentatzea....

Gune/une feminista bateratu baten beharra ikusten dugu epe luzerako kontsentsu horiek ehunduko dituen. Gune/une feminista bateratu eta egonkorra: Asko aldatu da mugimendu feminista eta borroka feminista ulertzeko modua, baita jendartean dauden militantzia ereduak ere. Feminismoa, eremu guztietara zabaldu da eta han han-hemenka daude feministak lanean. Talde feministetan ez da indar guzti hori metatzen eta horregatik, ezinbestekoa ikusten dugu gune egonkor feminista bat sortzea. Ikuspegi feministatik herri gisa pentsatu eta eragingo duena, lehenetsunak markatu eta urgentziatzko egoerei irtenbideak proposatuko dizkiena. Baina era berean, burujabetza feminista Euskal Herrian zer den eta nola lortu pentsatzen jardungo dena. Ez da adituen talde bat izango, ez da lobby bat izango; Euskal Herrian egun dagoen aniztasun feminista hori batu eta beste herri eredu bat bultzatuko duen gune zabal, anitz, ireki eta egonkor bat baizik. Hau da proposamena, guk ez dugu inor ordezkatu nahi beraz kontsentsutik ikusten dugu gune honen definizioa. Bukatzeko, orain arte esandako guzti hau ez dugu konfrontaziorik gabe, tentsiorik gabe lortuko, gatazkarik gabe lortu. Eraikitzen jarraitzeko gatazkak sortu behar ditugu kalean, etxean, lantegian... Emakumeok bizirauteko praktika desobedienteak izan ditugu eta aurrerantzean ere, gure jendartea, harremanak, herri egitura ber-eraikitzen jarraitzeko, desobedientziaren praktika aintzat hartzen dugu.

Trantsizio feminista guk egin behar dugun bidea da, ez digu inork ezer egin ezta erraztuko ere beraz, inori itxoin gabe gaurdanik jarraituko behar dugu trantsizio feministaren ezaugarritzean bide propioak eraikitzen.

5. BIZI ETA LANDUTAKOAREN KONTAKIZUNA. ONDORIOAK.

Parada bikaina dugu Euskal Herrian feminismotik aldaketarako, kontraboteretik boterera pasatzeko. Horren erakusgarri izan genituen 2014ko abenduaren 13an Ondarroan (Bizkaia) eginiko Jostorratzak dantzaz ditugu, Euskal Herriaren burujabetza feministarantz Emakume abertzaleon VI. Topaketa feminista. Zorionak bertan bildu ginen 600 feministoi, Euskal Herrian burujabetza feminista nahi eta helburu dugun euskal feministoi. Bizipen, historia, errealtate anitz bizi ditugun arren, aniztasuna dugu bertute, eta Euskal Herriaren eta bertan bizi garen subjektuon burujabetza feminista dugu ipar. Bagoaz Euskal herriaren burujabetza feministarantz! Zorionak denoi, zorionak guztioi, zorionak feministoi eta eskerrik asko.

Badakigu globalizazioak, kapitalaren mugikortasun askeak, politika ekonomiko neoliberalak, krisi ekonomiko sozialak artean, azken hamarkadetan herritarron egoera sozio-ekonomikoa guztiz prekarizatu dutela. Eraldaketa prozesu esanguratsu batean murgildurik gaude, kapitalismoa ber-osatze prozesuan da. Hala, modernitateko instituzio zaharren zein harreman sozialen —eta horiek sortzen duten iruditegi kolektiboaren— aldaketen aurrean aurkitzen gara. Pobreen eta aberatsen arteko amildegia areagotzen ari da eta horrek, herritarron arteko lehia areagotzea dakar. Lehia horretan emakumeok, migranteok, transok, presook, dibertsitate funtzionala dugun langileok ez gaude irabazleen bandoan. Horrez gain, sistema patriarkalaren berregokitzapen horretan, herritarron bizitzak baldintzatzen dituzten erabakiak gero eta urrunago hartzen dituzte, boteredun ekonomikoen interesen mesedera. Borroka sozialen kriminalizazioaz, elkartasuna zigortuz eta militarizazioa handituz lortu dute inposaketa horiekin guztiekin aurrera jarraitzea. Egun indarrean dauden sektore eskuindarrak elkar indartzen eta elikatzen ari dira esplotaziorako hamaika mekanismo erabiliz: kontserbadurismoan igoera, fundamentalismo erlijiosoaren erasoak, emakumeon kontrako mota guztietako erasoak, gure gorputzen merkantilizazioa eta kontrola, eta baita emakumeok eskubideetan irabazitako lorpenen ahultzea ere.

Hortaz, bizi ereduaren aldaketa sakonaren aurrean gaude eta sistema patriarkal kapitalistak bortxaz ekarri gaitu gaur bizi dugun bizi dugun egoerara. Baina, arauak puskatu eta sortzeko, eraikitzeko, asmatzeko, beldurrari aurre egiteko, elkarlanean, autogestioan, instituzioetatik eragin-guneak sortzeko hautu politikoz jarduteko, komunikatzeko dugun gaitasunetan sinesteko unea da. Euskal Herrian bizi dugun aldaketaren abagunea aprobetxatzeko eta feminismoaren sokari indartsu eutsi eta tiratzeko garaia da. Ahalmena badugu eta baita aukera ere. Aldaketa norabidetu behar dugu, trantsizio feministaren bidean urratsak emateko tenorean gaude.

Gure iraultza aurrera eramateko subjektu politikoak sortzen jarraitu behar dugu; bizi dugun zapalkuntza anitzen (sexu-genero, klase, kultura-arraza, adina...) kontzientziatik abiatuz, praktika feminista bat garatuko duten subjektu politiko anitzak. Elkar artikulatu eta aliatuko diren subjektu feministak behar ditugu.

Egun, egoera sozio ekonomiko larria bizi dugun honetan, bizitza duin bat garatu ahal izatea gero eta zailagoa den honetan, bizi baldintza duinen alde lanean jarraituko dugu. Oinarrizko beharrak asetzea, pobrezia eta urgentziatzeko prekaritate egoerak identifikatu eta aurre egiteko estrategiak lantzen. Baina aldi berean, ezinbestean, ondo bizitzaren eta bizitza duinaren kontzeptualizazioan eta praktikan sakontzen jarraitu behar dugu.

Bagoaz Euskal Herriaren burujabetza feministarantz!

Bagoaz. Zaintza eta etxeko lanen onarpen soziala eta hauen banaketa lortzera: sexuen arabera lan banaketa gainditzea. Etxeetako lanak eta denborak banatu eta egun etxeetan sostengatzen diren hainbat zaintza lanen ardurak kolektibora igarotzera.

Bagoaz. Denboraren banaketa justu eta parekoa lortzera. Gure behar eta nahiak asetzeko aukera emango diguten tempusak sortzea.

Bagoaz. Gorputzen gaineko kontrola helburu duten politika eta neurrien kontra eragitera. Era berean, gorputz aske, anitz eta aldakorrek bilakatzeko bitartekoak sortzera.

Bagoaz. Gaur egungo familia, lagunarte eredu eta sexuen artekoak zein sexu identitate hegemonikoek sorrarazten dituzten kalteak azaleratu; eta bultzatzen dituzten bizitzeko ereduaren helburu eta baloreak agerian uztera. Sexu, genero eta sexualitate binomioak hautsi eta identitate kolektibo eta indibidual berriak sortu eta ber-asmatzera.

Bagoaz. Heteroaraua eta familia nuklearra zalantzan jarri eta elkarbizitza eta harreman eredu berriak ikusaraztera, guzti hauek dinamikoak direla jakitun.

Bagoaz. Indarkeria sexistak patriarkatuak erabiltzen duen tresna nagusia dela jakitun, honi aurre egiteko bitarteko berriak eskaini, erakunde publikoetan proposamenak egin, koordinatu eta autodefentsa feminista bultzatzera.

Bagoaz. Emakumeen ahalduntzea, antolakuntza eta saretzera. Aldaketarako subjektuak politiko anitzak sortu eta garatzera.

Trantsizio feminista abian da. Horretarako urteetan osatu eta Ondarroan horren erakusle izan den amaraunak, ezin du etenik izan. Burujabetza feminista dugu iparra. Norabidetze horrek burujabetza indibidual eta kolektiboa, eta feminismoa izango dituelarik. Burujabetza feminista, ez dugu egoera ideal, estatiko eta mugiezin baten gisara irudikatzen, prozesu dinamiko eta momenturo aldakorra izango den ipar moduan baizik. Borrokatzeko, alternatibak eraikitzeko eta aldarrikapen berriak identifikatzeko prozesu bat da. Nahi bat, desio dugun helburua lortzeko bidea.

Bakoitza bere eremutik bere kezketatik egingo dugu gure ekarpena, baina helburu komunekin jardun behar gara. Lidergo feminista indartsu bat osatu behar dugu. Indarrak biderkatu eta elkarrekin borrokatzeko garaia heldu da. Denak gara beharrezkoak. Batzuek estatu feminista sortzea dute nahia, besteak mugimendu feministaren aliantza estrategikoak dihardute; baina denak ere gure herrian trantsizio feminista egikaritzeko nahiaz gabiltza. Bide horretan, epe motzean gune feminista iraunkor bat martxan jartzea beharrezkoa dela deritzogu: elkarrekin norabideak zehaztu, erabakiak hartu eta intzidentzia politikoa irabazteko. Burujabetza feminista erdieste bidean, epe luzerako kontsentsuak lantzen joateko eta trantsizio feminista marrazten joateko gunea behar dugu.

Aliatzeko momentua da. Amaraun feminista anitz, zabal eta sendo bat osatuko dugu, elkarren aitortzan eta aliantzan ehundua. Mugimendu Feministan dauden estrategien aniztasunetik abiatuta, Euskal Herriaren burujabetza feminista estrategia hauen elkar uztarketatik lortuko baitugu. Aliantza horiek adostasunetik eraiki eta desadostasunetik ere garatuko ditugu. Unean uneko aliantzak eta aliantza estrategikoak izango dira. Jatorri, diziplina, belaunaldi edota kultura politiko ezberdinen artekoak.

Une historikoa bizi dugu. Inoiz baino aukera gehiago ditugu aldaketarako, inoiz baino aukera gehiago eraldaketa hori errotik izateko: Euskal Herriaren burujabetza feminista lortzeko. Feministok boterearen jabe izango gara eta ahalmen politikoa lortuko dugu: kontra-boteretik boterea eskuratzera pasa behar dugu. Horretarako, Mugimendu Feministatik mintzakide politiko eta sozial gisa aitortza erdietsi behar dugu, erabaki eta mapa politikoan eragin ahal izateko, hura baldintzatu ahal izateko. Hau epe motzean lortu dezakegu helburu eta estrategia komunak jarriz gero.

Bagoaz Euskal Herriaren burujabetza feministarantz!

6. TOPAKETEN INGURUAN IDATZITAKO IRITZI ARTIKULUEN BILKETA

Principio del camino (Gara. Jo Puntua. Kizkitza Gil de San Vicente)

Bilgune Feminista surge en el año 2002 como una red de mujeres feministas que asumen el compromiso de construir una sociedad igualitaria. Con ese objetivo, define un Plan Estratégico de tres prioridades: la lucha por la paridad, el reconocimiento de la existencia histórica del patriarcado y la transformación de las relaciones de poder entre los sexos. Esta propuesta responde a un contexto marcado por el proceso de Lizarra-Garazi y posteriores experiencias como el Foro de Debate Nacional.

Tras dar por superado el autonomismo, diversas expresiones del movimiento abertzale confluyen en una estrategia de institucionalización y construcción nacional. Al mismo tiempo, se asume que la resolución del conflicto vendrá de manos de un proceso democrático basado en el derecho a decidir. El feminismo abertzale consideró que debía incidir en las posibilidades del momento, definiendo un feminismo de construcción y apostando por integrar la perspectiva de género en la mayoría de iniciativas y debates.

Vivimos un momento de cambio político y urgencia social, y el feminismo vasco puede extraer lecciones del pasado para responder al presente de forma novedosa. El feminismo debe incidir en la dirección del cambio político y social y apostar por un proceso democrático que nos convierta en artífices de nuestro futuro. A partir de la década de los 90 el feminismo abertzale prioriza la lógica transversal. Es decir, integrar la óptica feminista en todos los ámbitos y políticas sin renunciar, como es lógico, a la exigencia de adoptar medidas específicas de acción positiva. Esta lógica diversifica y extiende la lucha feminista, pero ha debilitado la agenda, definida desde el feminismo, que nos haga transitar hacia un nuevo modelo social. Debemos, por lo tanto, incidir en el contexto; pero para avanzar en la transición feminista y alimentando siempre una visión estratégica propia.

Bilgune Feminista y su propuesta de Plan Estratégico surge en un momento de polarización dentro del feminismo. Factores tan diferentes como la crisis política y social, el fin de la lucha armada y una nueva generación feminista, junto con el trabajo de reconocimiento realizado en el feminismo vasco, anticipan una nueva realidad. Existen condiciones, para que mujeres de culturas feministas y adscripciones políticas diferentes tejamos complicidades en una misión común hacia el feminismo. Ondarroa es el comienzo del camino.

Nahikoa da Ondarroara (Gara, Kizkitza Gil de San Vicente) 2014/12/11

Jo Puntuaren gaia mamitzean kontraesan batean murgildua nengoen. Hoztasun politikoak lurralde batasunaren aldeko estrategia berritzeaz hitz egitea eskatzen zidan bitartean, berotasun politikoak biolentzia patriarkalak sortzen digun mina azaltzera bultzatzen ninduen.

Goizean hoztasun politikoa gailendu da. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian martxan diren ahalmentze prozesuek lurralde batasunean abiatzeko oinarri politiko eta sozial berriak ekarri ditzakete. Prozesu hauetan ezker independentistaren ikuspegi propioak estrategia independentista irauli egiten du, erronka berriak sortu eta aberastu egiten gaitu.

Eguerdian berriek kolpatu gaituzte berriz: bi emakume hilak Euskal Herrian. Berriz ere mina eta oraingoan luze dirau. Ezin kabit. Ezin lotu. Nahikoa da.

Emakumeok patriarkatuaren biolentzia hurbiletik ezagutzen dugu. Gutxituak izan eta gutxiago sentitu. Jazarriak izan eta beldurtuak sentitu. Behatuak izan eta ikusezinak bilakatu. Alboratuak izan eta mututu. Tartean pertsona sentitzeko hoberena edo osagarri perfektua izateko anbizioa jota uzten gaitu. Beldurra sutondoaren goxoan uxatu eta familian edo bikoteran itzalean giltzatu egiten gara. Entzuna izateko irria eta gorputza erabiltzen abilak bihurtu eta ikusia izateko erakargarri eta arina, batez ere arina, eta moldagarria bilakatu.

Emakumeoi min sakona sortzeaz gain, biolentzia honek oinarrizko funtzioa du jendartean. Emakumeon lan indarra eta ugalketarako gaitasuna menperatzen laguntzen du. Gizon zapalduari kudeatu dezakeen boterea eskaintzen dio. Komunitateon garapena eta aberaste soziala errotik mozten duen suebakia da. Nahikoa da. Hoztasun politikoari bide ez ematea ez da nire ohiko estiloa. Bakoitza den bezalakoa da. Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako prozesu politikoak esentzian ezberdinak dira. Lehena ezberdinen arteko akordioan oinarrituta dago eta bigarrena aldaketa demokratikoa ekarri behar duen hegemonia politiko eta sozialaren bila doa. Biak dimentsio goreneko erronkak Euskal Estatuaren bidean.

Gaur, halere, barneak lehertu zaizkit. Nahikoa da. Protestak presentzia irabazten duenean itaundu egiten gaitu. Euskal jendarteak hartu behar du hitza eta euskal feminismoak bidea eskaini behar dio.

Ondarroara (Berria, Larrepetit. Danele Sarriugarte.) 2014-12-05

Kausa dohatsuen aldeko nazioarteko (edo ez) egunak barra-barra markatzen dizkigun honetan egutegiak, kasuan kasuko kausez bortitzen zeharkatuak direnek ia automatikoki aldarrikatzen dute (kausa egun zehatz batean ikusgaitu behar dela baieztatzearekin bat) kausak kausiarazten dizkien kalamitate eta kuxidadeak izan behar direla kontuan hartuak, agerikoak eta gaitzesgarriak ez soilik kausaren hitzordu ofizialean baizik eta egunero-egunero-egunero. Logikoa da, noski, kokoteraino daude-eta (gaude-eta) kausaren eguneko hitz polit eta potolo guztien osteko indiferentzia hipokrita nardagarriaz.

Horrela, bada, azkenaldikoak ahotan hartuta, epe luzera begira eta konstantzia gogoz exijitu eta ekin genuen: #A25ean ozen esanda autodefentsarekin lehertu behar dugula patriarkatua (ez preseski 24 orduan burutzeko langintza) eta mural argitsuak margotuta puntu ilunetan, adibidez Otzetako tunelean, alde guztietatik irentsarazi diguten beldurraren kontra gogora dezagun erantzun dezakegula, argi moreak indartzen gaituela. Gertuago, aste honetan bertan, kartel arrosarekin ordezkatu dugu iazko urdin higatua, euskarak 365 egun dituela, eta penaz baina uztarekin orokorrean pozik bota dugu azken mikroipuina, egunero karaktere apur batzuekin gure mihia Twitterrian ere dantzarazteagatik kontent, nafarrek erranen luketen gisan.

Horrelaxe, bada, ezin diogula sekula utzi geu izateari, emakume euskaldun eta feminista, ezin ditugula bata eta bestea banatu, liskartu, etsaitu, ezinbestean behar ditugula biak ere estu lotu, Amaia Ezpeldoik bere laugarren abenturan bezala ahokorapilatu: eusleskarabianakaralesbeusbianaka; egunero euskara, egunero andreok plazara. Badatozela Emakume Abertzaleon Topaketa Feministak, bidean goaz buru-gorputzak armatuta, bihar zortzi guztiok Ondarroara.

Euskal trantsizio feminista (Berria. Jule Goikoetxea) 2014-11-26

Demokratizazioa erakundetze prozesu bat da, estatu ahalmenaren eta gizarte mobilizazioaren arteko dinamikaren ondorioa; diferentzia eta berdintasun batzuk (ez beste batzuk) sortu edo birsortzen dituen herria gobernatze prozesuan barneratzeko helburuarekin.

Gizartea osatzen duten diferentziak eta berdintasunak ezin dira aldeztu erabaki, gizartea ehuntzen duten botere harremanen araberakoak izango baitira. Berdintasun sozioekonomikoa sustatzea demokratizazioaren ezaugarritzat dugu, diferentzia sexualak sortzea, aldiz, patriarkatuaren ezaugarri, baina diferentzia sexualak patriarkatuarekin ez demokraziarekin lotzea borroka ideologikoaren (zentzuaren borroka) ondorio da. Berdintasun sozioekonomikoak aurrera egin duen eremuetan patriarkatua ahuldu da, berdintasun horrek epe ertainera berdintasun kulturala (formakuntza, kontaktuak, ikasketak) dakarrelako, eta, alderantziz. Horiek, aldi berean, berdintasun politikoa sustatzen dute gizonezkoen eta emakumezkoen artean, sexu-generoen arteko desberdintasunean oinarritzen den egitura soziala eta sistema politiko-ekonomikoa eraldatuz, epe luzera, eta, borroka ideologikoaren menpe beti.

Demokratizazioak kapital kulturala, ekonomikoa eta sinbolikoa (prestigioa) berdintzen ditu (nola lortzen duen

da galdera) eta geroz eta kapitalen arteko desberdintasun handiagoa orduan eta sendoagoa patriarkatua eta kapitalismoa.

Horregatik doaz eskutik XXI. mendean feminismoa eta demokrazia.

Horregatik ez dugu herrigintza demokratikorik aitortuko emakume bezala sozializatu diren eta gurekin batera periferian dauden gorputz eta bizitza desprestigiatuen askapenik ekarriko ez duena. Askapenak esanahi anitz ditu, badakigu, oraingoz nahikoa da gorputz guztiek gaizkia egiteko aukera berdintsuak izatearekin.

Horretarako demokraziaren esanahi patriarkalak birplanteatu beharko ditugu. Adibidez, Gatazkaren konponbidea diskurtsoak pare bat kilo androzentrismo izerditu beharko ditu. Zer esanik ez Bakea eta elkarbizitzaren makro-errelato-mundu-ikuskerak.

Gatazka politikoa ez da bakarrik Estatuarekin duguna. Politika ez da soilik alderdiek egiten dutena. Biolentzia politikoa ez dute gudariak bakarrik jasaten.

Gatazkaren Konponbidearen errelatoak ez du kontuan hartzen populazioaren erdiak baino (askoz ere) gehiagok egunero bizi dugun gatazka eta biolentzia politikoa. Eta guk ere konponbideak nahi ditugu.

Horretarako ez da bakegintzaz hitz egin behar, feminismoaz baizik. Bakea ez baita existitzen, feminismoa bai. Hori egin ezean Gatazka politikoa esaten dioguna konpontzean ez gara Bakean biziko edo, nahi bada, gure Bakeak eta Elkarbizitzak emakumeon bortxaketan, ustiaketan eta umiliazioan errotuta jarraituko du. Geure biolentzia geure bakea geure konponbidea geureak direlako, gizonen biolentzia bakea eta konponbidea, aldiz, guztiona. Gu partikularrak garelako, gizonak unibertsalak. Eta demokrazia ere unibertsala omen, hots, gizonena. Demokrazia unibertsala demokratizazio feminista bilakatzen ez badugu Euskal Demokraziaren periferian geratuko gara berriro ere.

Emakume gisa partikular, kolektibo, sektore edo zati izango gara berriro ere, inoiz ez osotasun. Inoiz ez Herri.

Eraikitzen ari garen Euskal Herrian ez dugu onartuko emakume izateagatik pairatzen ditugun egiturazko biolentziak oinarri hartuko ez dituen Bakerik, genero ikuspeirik ez duen Gatazkaren ezaugarritzerik, labur esanda, populazioaren gehiengoaren duintasuna eta ongizatea erdigunean ipintzen ez duen sistema, analisi, begirada eta proposamen politikorik ez dugu baietsiko.

Horretarako bilduko gara Ondarroan Abenduaren 13an, eztabaidatzeko, eraldatzeko, Euskal Herriko Trantsizio Feminista abiatzeko.

Hori da hurrengo urteetan Euskal Herriak historia politiko unibertsalari egingo dion ekarpena: estatugintza demokratiko feminista.

Erortzeko moduak (Gara. Arantza Santesteban) 2014/12/04

Altuera handiko eraikin batetik ezinbestean eta astunki erortzen doan gorpua irudikatzen dugu Kosowicz-en «La Haine» pelikularen lehenengo istantean. Narratzaileak dio: «Oraingoz dena doa ongi, oraingoz dena doa ongi, oraingoz dena doa ongi». Eszena esaldi hilgarri honekin amaitzen da: «Inportanteena ez da erorketa, inportanteena lurreratze unea da».

Metaforikoki hartuta, erortzeko modu asko dago. Sarritan iritzia ematea edota hainbat diskurtso plaza publikora jaurtitzea danbateko bihur liteke. Iritzigintzak, ordea, dena esan daitekeen agertokia behar luke. Guztia auzitan jar litekeen lekua; izan tertulia, artikulua edota asanbladetan. Halakoetan labainkorak diren gaietan politikoki zuzena izatea saritu izan da oraindano; polemikoak izan daitezkeen posizioak autozentsuratzerraino askotan. Garai berrietan gaude halere eta irekiera mentalak askotariko iritzia eskatzen omen ditu.

Victor Lenoreren gafapasten liburuak zer pentsa eman dit auzi honi dagokionez. Sofistikazioa da une honetan gizatalde aspergarri eta zamatsutik bereizten gaituena; izan liteke egiten duzun kontsumo kulturalarengatik edota modu casual-ean duzun uste jenial horrengatik. Bereizketa da garrantzi handiena duena.

Dinamika honetan sarturik zaila da ez erortzea. Edota erortzen ari zarelarik «oraingoz dena doa ongi» pentsatzea. Handia bihurtzen da iritzirik behinena izateko tentaldia: Generoarena diskurtso mainstream-a bihurtu dela eta hartara genero indarkeria kategoria mediatikoa dela esatea kasu. Edota generoa zein sexua bezalako kategoriek ez digutela balio afera problematikoen dimentsio osoa azaltzeko: biolentzia askotarikoa dela eta emakumezkoek ere eragiten dutela.

Honakoa ez da sinplismoaren aldeko arrazoibidea. Guztiok dakizkigu proposamen politiko sakon eta konplexuak lelo jakin batzuetara mugatzearen kalteak. Azken urteetan, ordea, botere harremanen jatorria eta hauen ondorioak ulertzen laguntzeko ekarpenik egon bada, hori feminismoa(k) izan d(ir)a. Hain sofistikatuak ez diren baina indarrean jarraitzen duten arrazismoaren eta klasismoaren kategoriak zeharkatzen irakatsi diguna; finean, gustatzen ez zaiguna aldatzeko eta lurreratzeko tresneria eskaintzen diguna. Abenduaren 13an Ondarroako topaketa feministetan horretan sakontzen jarraituko dugu, gureak ez duelako sinplismo ariketa izan nahi. Gauzak aldatzera etorri gara.

Gazteok ere Ondarruara! (ernaigazte web gunean)

Aurtengo abenduaren 13an emakume abertzale eta feministon VI.topaketak gauzatuko dira Ondarrun. Ernaiko kideok ere gure egiten ditugu topaketa hauek, gaurdanik Euskal Estatu sozialista eta feminista eraikitzeke beharrezko parada gisa kokatzen baititugu eta zentzu horretan, neska gazte abertzale eta feministon ekarpena ezinbestekoa dela ulertzen dugu.

Burujabetza feministaren bidean pausuak ematera goaz, Euskal Herriaren eraikuntza zein prozesu politikoaren feminismitik egin behar dugu, benetako eraldaketa gauzatu eta herri aske bat garatu ahal izateko.

Honela ba, aurtengo topaketetan gure ekarpena egin asmo dugu: neska gazteok gara egun etorkinekin batera egoera prekarioenak bizi ditugunak, indarkeria ikusezin zein agerikoa gure egunerokotasunean pairatzen dugunak, sexismoaren jo puntua garenak... Horri buelta emateko haziak bertan jarriko ditugu eta beraz, gure herria feminista izan dadin ezinbesteko zita dugu!

Bide honetan, gonbita luzatu nahi diegu neska gazteei abenduko topaketetara gerturatu eta beren ekarpena egitera.

Demokratizazio prozesua feminista izango da, ala ez da izango (Sortu)

Mundua ikusteko haustura planteatzen duen ikuspegia da feminismoa. Eta Ondarrun datorren abenduaren 13an egingo diren Topaketa Feministek aukera emango digute, batetik, diagnostiko konpartitu bat eraikitzeke eta trantsizio feministarako gakoak aztertzeke, bestetik.

Feminismoaren ekarpena ezinbestekoa da gure askapen-prozesuan. Burujabetza politikoaren eta ekonomikoaren lortzeko lan egiten dugu, burujabe eta buruaske izan gaituzten esparru guztietan, kolektibo gisa eta baita pertsonalki ere. Horrek eramaten gaitu, ezinbestean, egiturazko kateak identifikatzera, patriarkatuaren, kapitalaren eta inperialismoaren dinamikak ezagutzera, kate hauek apurtu eta kateetan baino laguntza-sareetan oinarrituko den eszenatoki bat sortzeko. Horrek garmatza makroa eta mikroa aztertzeke, egiturek gure bizitzak baldintzatzen dituztelako baina,aldi berean, etengabe birsortzen ditugulako. Feminismoak aspaldi nabarmendu baitzuen, pertsonala politiko dela, eta politiko pertsonal. Dena dago lotuta eta behartuta gaude gure begirada zorroztera, kolore anitzetako betaurrekoekin errealtatea aztertzeke, betaurreko moreak ahaztu gabe.



Feminismotik lan asko egin dugu. Porrotetatik ikasten ohituta gaude eta garaipen batzuk ere lortu ditugu. Baina zenbatetan ez ote dugu pentsatu ondo ari ote garen, eraldaketarako gakoetan eragiten ari garen edo, kontrara, ñabarduretan eragiten soilik ez ote garen ari. Era berean, parekidetasunean aurrerapausoak ematen ditugun neurrian, emakumeen zapalkuntza mantentzeko estrategia berriak sortzen dira, askotan are indar handiagoarekin. Askapen-prozesua ez baita ez erraza ezta lineala ere.

Bestetik, krisialdiaren ondorioak lazgarriak dira, baina ikuspegi feministatik honakoak liriteke ondorio nagusiak: emakumeoi inposatutako subsidiaritateak denetariko diskriminazio eta eskubide urraketak inplikatzeko, lan-munduan barneratu eta parte hartzeko, jendarte babes esparruan zein zaintza eta etxeko arduren sozializazio eta banaketan. Herritarron bizi-baldintzak kaskartzen dituen prozesu batean murgiltzen gaitu sistemak. Prekarietate egoeretatik eskusio egoeretara pasako gara herritar sektore ugari, gehienak emakumeak.

Krisialdiaren ondorio asko aipa ditzakegu; baina, herri-sektoreentzat ondorio ekonomiko larriak ez ezik, botere-harremanak betikotzea eta sakontzea ere badakar krisialdi honek, jendartearen antolaketa-ereduan horrek suposatzen duen guztiarekin. Bestetik, parekidetasunaren aparientzia edo itxura nagusitzen da esparru askotan eta politika instituzionalean nabarmen.

Aldaketa garaiak bizi ditugu, horregatik uste dugu egitea bezain garrantzitsua dela, noizean behin, geldialdi bat egitea eta denon artean hausnarketa pausatua egitea, aztertzeke zein egoeran gauden gaur egun, zertan egin dugun aurrera, zertan atzera, eta pertsona askez osatutako Euskal Herri askea egiteko beharrezko den trantsizio feminista nola egingo dugun pentsatzea.

Trantsizio feminista zertarako? Aldaketa garaiak bizi ditugun honetan, demokraziaren devaluazioaren aurrean alternatibak marraztuz estrategia feminista birdefinitu behar dugu eta berau gure tresna bilakatu. Demokraziaren aldarrikapena egitetik, demokrazia eredu hau deseraiki egin behar dugu, oinarri sendoago batzuen gainean eraikitzeke, eskusiorik gabe, feminismoak historikoki demokratizazioari egindako ekarpena aintzat hartuz. Demokrazia despatriarkalizatu behar dugu eta, zentzu horretan, feminismoak egin dizkion ekarpenak maila teoriko-ideologikoan eta praktika politiko eta organizatiboan aintzat hartu. Praktika politikoari feminismoak egindako funtsezko ekarpena, lelo klasiko batean laburbiltzen da “pertsonala politikoa da”. Demokrazia feminista definitzerakoan hainbat elementu kontuan izan behar dugu, lehen esan bezala, erdigunean pertsona jarriz eta pertsonala dena politikoa dela kontuan izanik, emakumeek bigarren mailako herritar izateari uztea gako nagusietako bat da eta egungo botere-harreman nagusiak apurtzea da demokrazia feministaren oinarrietako bat.

Garai berrietan aldaketak beharrezkoak ditugu. Euskal Herri berri bat sortzeko bideari ekin diogu eta bide horren norabidea zehazterakoan feminismoa izan nahi dugu ipar nagusietako bat. Zer da trantsizio feminista? Aurreko hitzetan argitua geratu dela uste dugun arren, ezinbestekoa dugu esatea euskal bidean lagun nagusia izan behar duena. Eta zergatik? Feminismoaren ekarpenak ezkerreko ikuspuntua bermatuko duelako.

Emakumeok geure burua ahaldundu behar dugu, lehen lerroko aktore politiko izateko. Politika alderdi politiko, hauteskunde eta instituzioak baino askoz gehiago delako. Eragile politiko nagusia herria eta herritarrak dira, emakume eta gizonak. Emakumeon subsidiaritate egoera aintzat hartu eta berau gaintzeko estrategia txertatu behar dugu gure egiteko politikoan. Subjektu politikoak izan behar gara eta beharrezkoa den prozesu honetan modu aktiboan parte hartu, feminismoak ala exijitzen digulako. Kultura politiko berri baten beharra aldarrikatuz gauzatzerako salto horretan, aukera-berdintasunean oinarritzeaz harago, feminismoaren ekarpena aintzat hartzea inplikatu behar du.

Hobeto bizitzeko demokrazia behar dugu. Hobeto bizitzea, denon beharrak aseta egongo diren momentuan emango da. Askok teorizatu daiteke honen inguruan, baina aurretiko kontsiderazio bat dago, alegia, jendartearen erdia kontutan hartuko duen eraldaketa sustatu behar dugu, bestela ez da egongo ez ongizate komunik, ez eta demokraziarik ere.

Jendarte justuago eta eskubide- eta aukera-berdintasuna ahalbidetuko duen eredu bat bermatzeko



beharrezkoa izango da ezkerreko emakumeen arteko aliantza feminista eraikitze lan egitea, interbentzio politikorako espazio komunak sustatzea eta subjektu feministari izaera sozio-politiko aitortzea. Bide honetan ezinbestekoa izango da aliantzak sustatzea mugimendu feminista eta ezkerreko indar subiranisten artean.

Lerro hauen bitartez emakume feminista, ezkertiar eta abertzale moduan euskal feminismoaren etapa berri honetan ere gure ekarpena egin nahi dugu eta Ondarrun egongo gara ideiak konpartitzeko, beste hainbat emakumeekin eztabaidatzeko eta baita orain eraikitzen ari garen bide honetan ekarpena egin ahal izateko ere.

Trantsizio feministarako gakoak Euskal Herriko emakume abertzale eta feminista guztion artean bilatu behar ditugu, hausnarketa kolektiboa behar du izan, elkarren artean egindako hausnarketa elkarrekin praktikan jar dezagun hemendik aurrera. Denok dugu zer esana, denok gara beharrezkoak. Eta Ondarrun dugu hitzordua abenduaren 13an.

Ondarrun ereindako haziak ekar dezala etorkizun hobeago bat.

Burujabetza feministaz (Saioa Iraola)

Urte luzez uste izan dut burujabetzaren ideiak abstraktua, urrunekoa, kanpoko indarrek eskainia... izan behar zuela, irakurtzen nituen mezuek eraginda: Euskal Herriak burujabetza behar du! Baina zein da, nor gara Euskal Herria? Nola lortzen da hori, ez bada, hain zuzen, subjektuon jardunaz, herritarrok osatutako herriaren jardunaz? Maiz jaso dut herriak soilik izan behar duela burujabetza subjektu gisa, estatu propioek ohi bezala, eta behin burujabetza administratibo, politiko zein kulturala lortutakoan, eskumenen gaineko eskumena izanik, hasiko garela herria subjektua osatzen dugun subjektuon burujabetza prozesuez jarduten, eztabaidatzen.

Eta nire ustez, burujabetza prozesuak, soberaniak, bide eman behar digu buru-gorputzen jabetzatik –jabe izatek-, kolektiboki, nazio eta herri gisa burujabe izatera pasatzeko. Ez dagoelako burujabetzaren subjektu soil eta bakar bat, botere politikoari eta euskal estatuaren sortze prozesuari baino loturik ez dagoena. Aitzitik, horrek bidelagun izan behar ditu beste hainbat prozesu, euskal jendartea osatzen dugun herritar oro burujabe izan eta askotariko zapalkuntza sistemetatik osatuta-sendatuta egoteko, aske izateko, burujabe izateko. Bestela, zertarako balio diezaguke emakumeoi Euskal Herria burujabe batek, baldin eta ez badugu aske sentitzerik emakume gisa, langile gisa, lesbiana gisa eta gorputz ez arautu batean bizi garen aldetik?

Nola irudikatzen eta desio dugu burujabetza? Askotan hitz egin dugu herriaren burujabetzaz; demokrazia, herriaren botereaz; soberaniaz, botere politikoaz. Ez ordea, hainbestetan, nola irudikatzen dugun edota zertarako dugun beharrezko. Feministok burujabetza prozesua zehazten hasiak gara eta horretan sakontzen jarraituko dugu... Bagoaz, badatoz Jostorratzak dantzan ditugu Euskal herriaren burujabetza feministarantz Emakume Abertzaleon VI. Topaketa Feministak. Abenduaren 13an Ondarroan ikusiko dugu elkar!

Nolako nahi duzu
zuk Euskal Herria?
nolako da aizu, zure argazkia?
nik irudikatzen dut
erabat berria
elkar zainduko duen
aberri txikia
parekidea eta
gure eskuz josia!

Ehundu dezagun ba
gure etorkizuna
ez utzi desjabetzen
zure askatasuna
erabaki dezagun
izan nahi duguna
konpromisoa dugu
ta ziurtasuna
balore iraultzailez
lortuko dugula!

Ez gara inorenak
dio esaldiak
gureak dira gure
gorputz ta biziak
gure eskubideak
desira bustiak
familia eredu
anitz ta berriak
hanka arteak eta
gorputz biluziak!


Zertarako genero
prefabrikatuak
estigmatizatuaz
besteon hautuak
bilakatu gaitezen
haien deabruak
subjektu feminista
ta intsumituak
plazerrez iraultzeko
norma arautuak!


Deseraikiz eraiki
ta bilutzuz jantzi
betaurreko moreak
ez inoiz erantzi
jostorratzak atera
eta josten hasi
hamaika egin dugu
ez dezagun ahantzi
erronkei gogoz helduz
baietz irabazi!

Ekhine Eizagirre
Fleuryko espetxetik, gure herria bihotzean

Maitane Gartzandia Agirrezabala eta Loinaz Lekuona Izagirrereren ilustrazioak







**“Eskerrak izan garenoi, zaretenei, zuri, zuei.
Zuekin bagarelako”**

*Jostorratzak dantzari ipini eta gure arteko amaraun feminista
ehuntzen aritu garen guztioi.*

Bihotzez, mila esker!

*Bagoaz Euskal Herriaren burujabetza feministarantz! Elkarrekin ez-
tabaidatuz, adostuz, desadostasunetatik ikasiz, irakurriz, eraginez,
ahaldunduz, partekatuz, hitz eginez, dantzatzuz...*



Jostorratzek dantzan ditugu, Euskal Herriaren burujabetza feministarantz!
Emakume Abertzaleon VI. Topaketa Feministak

